ELKARRIZKETA: RAFA FERNANDEZ, DANBORJOLE OHIA

# Arrasate PRESS

1999ko
Ekainak 18
456. zenb.



## Sanjuanak danbor hotsez datoz

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • KULTURA ELKARRIZKETA: XELI MENDIZABAL

EUREN IKUSPUNTUTIK: URTZI MENDIZABAL • KIROLA: GOITIBEHERAK


San Joan jai zoriontsuak
opa dizkizue
Arrasateko Udalbatzak
arrasatear guztioi
ARRASATEKO UDALA

# Alkatearen agurra*

**Herrian alde, gazteriagaz**
**aritzeko dugu gura,**
**hemen egongo, gara gu beti,**
**Arrasaten zerbitzura.**

**San Juanetan, agur bero bat,**
**Udaletxetik denentzako,**
**aprobetxatu, egun hauetan,**
**denok ondo pasatzeko.**



* Diharduen alkatea

*"Gobernu Batzorde berrian demokraziaz jokatuko duten guztiek izango dute atea zabalik"*

**Xabier Zubizarreta**


ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Joxe Aranzabal. **Kazetariak**: Marijo Deogracias, Ubane Madera,Maider Osa. **Publizitatea**: Nerea Zallo,Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroiabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Administrazioa**: Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua**: Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemailea:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak**: Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal . **Banaketa arduraduna**: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

**ARRASATE** PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**ARRASATE** PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala**: Ubane Madera.

*Arrasateko Udalaren laguntzaz* | *Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz* | *Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz*


# 4

## udal hauteskunde jarraian irabazi ditu Xabier Zubizarretak

EAJ zatitu zenetik, Arrasaten egin diren udal hauteskunde guztiak, hiru, irabaziak zituen HBk. Ekainaren 13, ostera, berriro irabazi zuen, oraingoan EAJ-EA koalizioaren kontra.

HAUTESKUNDEAK ARKON

## ATBren hauteskunde gaua

Ekainaren 13ko gauean ATBk berebiziko saioa eskaini zuen hauteskundeen inguruan. Ia hiru ordu iraun zuen zuzeneko saioak. Denbora horretan, Arrasateko emaitzak bailarako herrietakoak, buruzagi politikoen iritziak, berriemaileen deiak, inoiz baino hobeto egindako taulak eta guztiari bukaera emateko, San Frantziskoko iturrian hartutako irudiak. Maria Agirrek, Mikel Irizarrek eta Mikel Lezamizek informazioa eta iruzkinak eskaini zituzten, goi mailako lana eginez. Saio arrakastatsua izan zen.

*Arrasate Press*ek biharamonean atera zuen orriak ere sekulako arrakasta izan zuen. Ordu gutxiren bueltan, desagertu egin zen. Arkoko jendeak txapela kentzeko moduko lana egin zuen.




# Beatriz

oinetakoak

1946-1999

*50 urteko muga gainditu dugu zure oinak jazten!*

Erdiko kale, 11 • ARRASATE • Tel.: 943 79 14 33

# Gerra bukatu da. Irabazi dugu.


Karmele Perez

Hitz arrunta, irabazi. Lehiakorra eta askotan zikina, baina arrunta azken finean, linguistikoki zein historikoki.

*Irabazi.* "Norbaitekiko edo zerbaitekiko lehian edo borrokan abantaila hartu, nagusi geratu". Komunikabidea nork kontrolatu, hark irabazi dio besteari. Ez du axola borrokaren arrazoiak. Eta ez du axola moduak, ez du axola bidean geratzen denak, ez du axola ezerk. Nik ulertzen ez ditudan beste gauza askok axola dute, antza. Edonoren eta edozeren gainetik.

*Irabazi.* "Nork bere lanaren edo jardueraren ondorioz diruzko sari bat eskuratzea". Irakurri baino ez da egin behar armen produkzio eta salmentetan edo "defentsarako" aurrekontuetan erabiltzen diren diru kopuruak. Eta denok dakigu nork egiten dituen, nork erosten dituen eta nork irabazten duen.

*Irabazi.* "Behar bezalako portaera izanez eta merezimenduak eginez helburua erdietsi". Merezimendu osoz irabazi dute zerua milaka pertsonak, hauen eta haien eskuetan. Eta, dirudienez, merezimendu osoz irabazi infernua ere, kanpamentuetan bertan daudelarik edo dagoeneko etxerik eta lanik ez daukaten tokietara itzultzen direlarik: zer daukate bortxakeriaren mamua etengabe uhurika baino? Gutxi batzuek merezimendu osoz irabazi dute gerra-kriminalaren kategoria. Baina zertarako balio die horrek krimenen biktimei?

**"Hasierako helburua ez zen toki estrategiko bat eskuratzea?"**

*Irabazi.* "Norbaiten gogo eta atxikimendua bereganatu edo lortu". Lortu al du gerra eta bake honek munduaren atxikimendua? Tira, mundua agintariak izanez gero, badirudi baietz. Eta praktikan horrela gertatu da. Gu konpartsa hutsa al gara, bada?

*Irabazi.* "Onura edo abantaila lortu". Zenbatek egiten du gora besteen oinazearen lepotik? Gehiegik, aukeran.

Eta azkenean... iritsi da hitza:

*Irabazi.* "Konkistatu". Ez al zen hori, bada, hasierako helburua, kontrolatzen ez zen toki estrategiko bat eskuratzea, alegia? Izan ere, ze itxura emango dute 61.000 soldaduk lurralde horietan sartzen? Erasotzeko ez ziren sartu eta orain bakerako sartuko omen dira. Soldaduak bakea konkistatzeko? Noren edo zeren izenean hitz egin dezakete soldadu horiek bakeaz? Zein bake? Noren bakea? Eta bakea, norentzat? ■




weru®
Ate + leihoak

ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE

Salteraiz

PVC-zko ate eta leihoez gain: moketak, zoru arinak, kortxoa, Louverdrape kortinak, Kortinoba, testila...


Lizarra-Garazi eta Arrasate aurrera.
Zuen zerbitzura gaude.
Mila esker mondrauetar guztioi!!
EH
Euskal Herritarrok

# Diru asko gastatzen duzu sanjuanetan?

*San Joan bezperan hasi eta ia astebetez luzatuko dira herriko jaiak.*



**Josean Gandara**
**(20 urte)**
**Langilea**

Hiru egunetan ateratzen bazara, 25.000 pta gutxi gora--behera.



**Iñaki Perez**
**(65 urte)**
**Erretiratua**

Normala, txikiteotan eta bazkariren batean edo kafetxoren batean emaztearekin. Dena egunez, gainera.



**Eduardo Ozaeta**
**(59 urte)**
**Langilea**

Bestetan baino apurtxo bat gehiago. Goizetan txikiteoan eta iluntzean emaztearekin bueltaren batean.



**Beatriz Murgia**
**(22 urte)**
**Ikaslea**

Gauez ateratzen bazara, gehiago gastatzen duzu.



**Nagore Barrutieta**
**(23 urte)**
**Langilea**

Larregi. Bainuetxe batera joatea erabaki dut, gutxiago gastatu eta lasai egoteko.



**Anuska Altuna**
**(24 urte)**
**Langilea**

Bai, batez ere gauez. Kanpora joango nintzateke, baina aurten ere hemen geldituko naiz.



**Federico Martin**
**(51 urte)**
**Langilea**

Nagusia naiz eta ez dut askorik gastatzen. Baina kanpora joaten ez bagara, kalera atera eta beti gastatzen da zertxobait gehiago.



**Enara Aizpuru**
**(20 urte)**
**Ikaslea**

Bai, edaritan batez ere. Gogoen arabera, gehiago edo gutxiago gastatzen dut.





Uriarte SPORT
Ondo pasau San Juan jaixak!
Olarte, 6 • Tel.: 943 79 27 78 • ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit.. 943 03 53 00
Igualatorioa ........... 943 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ............. 943 79 39 00
(emakumeak) ......... 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua . 943 79 90 11

**Gurutze Gorria**
Bergara .............. 943 76 55 76

**DYA**
Antzuola ............. 943 78 71 57

**Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) .... 943 03 53 00
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . 943 03 52 50
• Espezialitateak........ 943 03 53 11
• Ikuskatzailea ......... 943 03 53 52
• Kanpoko kontsultak: ... 943 03 53 11
• Fax zenbakia: ........ 943 03 05 14
Aretxabaleta .......... 943 79 74 58
Aramaio .............. 945 45 51 16

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak . 943 45 87 44

**Udaltzaingoa**
Oñati ................. 943 78 04 11
Bergara .............. 943 77 91 06
Arrasate ............. 943 79 14 39
Aretxabaleta .......... 943 79 10 52
Eskoriatza ........... 943 71 44 07

**Ertzaintza**
Arrasate ............. 943 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea ........... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .... 088

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) .... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa ................. 900 40 05 23
...................... 943 79 78 44
...................... 943 79 76 78

**Garraioak**
Taxiak ............... 943 79 12 22
PESA. ................ 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza......... 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza . 943 79 81 57

**Monterron liburutegia**
Monterron ............. 943 77 01 05

**Irratia**
Arrasate Irratia ......... 943 79 58 77

## JAIETAN ERRESPETATU ANIMALIAK

Arrasateko Udalak etxe guztietara bidali duen herriko jaien programan jasotzen denez, ekainaren 19an, larunbata, Kaiolako Usakumeen II Tiroketa egingo da San Kristobal kanposantuaren ondoan, Leintze Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatuta.

Arrazoi etikoak eta ingurugiroarekin zerikusirik dituzten arrazoiak argudiatuz, behin eta berriz esan dugu ehiza mota guztien aurka gaudela. Badirudi usakumeen tiroketa ehiza eta arrantza elkarteek "kirola" egiteko asmatu duten era "modernoagoa" dela, gaurkoa.

Usakume tiroketan parte hartzen duten Leintzeko ehiztariei kirola iruditzen ote zaie San Kristobaleko kanposantu berriaren ondoan zenbait ordu tiro egiten eta hiltzen igarotea?

Usakumeen tiroketa Leintzek ez ezik, udalak ere antolatu du, bere programan sartu baitu ekintza hau. Bada garaia udal taldeek animaliei buruzko kode etiko bat zehazteko eta zabaltzeko eta, ondorioz, animaliei beharrezkoa ez den sufrimendua ematen dieten jaiak eta ekintzak alde batera uzteko.

Beharbada, herritarrok pentsatzen hasi beharko genuke ez garela ez aingeruak ez eta konputagailuak, animaliak baizik, hau da, tximinoen lehengusu-lehengusinak; animaliak ezagutzeak gu geu ezagutzeko balio duela; animaliak garela onartzea gainerako biosferarekin harreman armoniatsuak eta arduratsuak izateko oinarri-oinarrizkoa dela. Hausnarketa honetan, benetan lagun diezaguke Jesus Mosterinen "Vivan los animales" liburu interesgarria irakurtzeak.

***Mikel Olabe***
***Ekologistak Martxan-Eki.***

## KALERATZEA BASTIDA AKADEMIAN

Ez da denbora asko igaro aldizkari honetan bertan Bastida Akademiaren sorrera eta bilakaera nolakoa izan den irakurtzeko aukera izan genuenetik. Zuzendaritzaren hitzetan, enpresa handia bihurtu da Bastida Akademia eta gerora begira dituen erronkak ere aipatzen zituen.

Dirudienez, enpresa handia izatea eta langileen eskubideak errespetatzea ez dira bateragarriak.

1998ko irailean eginiko hauteskunde sindikaletan giroa nahasi samarra izan zen, akademiako zuzendaritzaren partetik ahalegin guztiak egin ziren eta, LABek ordezkaritzarik atera ez zezan. Ez zen horrela gertatu eta orduan hasi ziren arazoak, batez ere langile jakin batekin. Gure hautagaitzaren alde egin zuela argudiatuz, jarrera aldaketa izan zen orain kaleratu duten langilearekiko.

1999ko martxoaren 31n kaleratu egin zuten langile hau. Enpresak onartu egin du, epaiketaren aurretik egiten den kontziliazioan, kaleratzea ez dela bidezkoa eta dagokion kalteordaina ordaintzea. Beraz, ez da epaiketaren beharrik izan.

Jakingo duzuenez, bidezkoa ez den kaleratze bat gertatzen denean, enpresak bi aukera ditu: kalteordaina ordaintzea edo langilea berriz onartzea.

LABek Bastidako zuzendaritzaren aurpegi bikoitza salatu nahi du: hainbat komunikabidetan bere enpresa eredu moduan aurkezten duen bitartean, ez du lotsarik langileak inongo arrazoirik gabe, kalteordaina ordaindu eta kalean uzteko.

***Arrasateko LAB.***

Briz SEGUROS S.L.
ZURICH ASEGURUAK
*Casimiro Briz Salinero*
*Aseguru-Aholkularia*
Bulegoa: Eskatu Pabilioia
Araba Etorbidea, 3-2. solairua
Tel./Faxa: 943 79 42 35 • Tel.: 943 79 71 52
ARRASATE



NEREA

Erdiko kale, 28
ARRASATE
Tel.: 943 79 13 43

**Bainu jantzitan espezialistak!**





## USTEAK USTE

### *Alea jacta est*

**Erabakia hartuta dago. Herriak hitz egin du eta garbi hitz egin, gainera. EHko jarraitzailerik baikorrenak ere ez zukeen usteko horrelako emaitzarik aterako zutenik. Ezta jeltzalerik ezkorrenak ere.**

**Irabazleak pozez kabitu ezinik daude eta galtzaileek gizalegez onartu dute aurkariaren garaipena.**

**Jeltzaleen eta EAkoen etsipenaren gainetik, itxaropenez begiratu beharko genioke egoera berriari. Kanpaina inoiz baino bareagoa izan da. ATBn izan ziren alkategaiek berebiziko patxada erakutsi eta aurrera begira elkarlanerako urratsak egiteko asmoa adierazi zuten. Bide horretatik, hauteskundeen emaitzak jakin bezain laster, Xabier Zubizarretak ateak irekita utzi zituen Gobernu Batzorde berria osatzeko orduan.**

**Ona izango litzateke, ahalik eta talde gehienek parte hartzea udal gobernu berrian. Kanpaina eredugarria izan da. Hemendik aurrerakoa ere halamoduzkoa izan beharko litzateke.**

**Erabakia hartuta dago. Jar gaitezen lanean.**

**Joxe Aranzabal**

# Eibar-Gasteiz zertarako?

*** Urtzi Mendizabal**

Jadanik hasi dira Eibar-Gasteiz autobidearen lanak Bergara aldean. Gure bailaran sartzen ari den lantzar hau ez da hontzaren gauerdiko eztula. Beste arrazoi askoren artean, ingurugiroan izan dezakeen eragina, adibidez, itzela izan behar da.

Hamahiru kilometro tunelek, ezpondekin batera, 12 milioi m3 lur bolumen izugarria mugituko dute. Zati bat lubetean erabiliko da, eta bestea, 8.180.059 m3, isurtegietan utziko da. Lur honek Gasteizko Andra Mari Zuriaren enparantzan jarritako 2.045 metro garai den prisma bat beteko luke.

Guztira hamabi isurtegi aurreikusita daude: Bergaran, Belastegiko haranan, Iduri-xon, San Martzialen, Angiozarren eta Elkoromuinon; Arrasaten, Osinalden; Aretxabaletan, Egileorren; Eskoriatzan, Apotzagan, Mazmelan, Tximitx-Zarimutzen, Urbenduzkon eta Urdin errekan; Legution, Albertian; eta Zigoitian, Mendarozketan. Guztira 78 hektareako eremua estaliko da.

Landaretzaren ikuspegitik, Angiozarko bailaran isurtegiak 3,2 hektarea baso (hain eskasak diren harizti, zumardi, lizardiak...) suntsituko ditu. Ez dezagun ahantz leku hau interes handiko fauna gune dela. Etxezarretan 3,3 hektarea harizti suntsituko dira (Ikusten denez, autobideak ez du Etxezarreta saihesten, eta gainera bere basoaren %16 jaten dio).

Errekei dagokienez, aipatzekoa da Bagueta errekan egiten den kanalizazioa. Erreka honek, oso egoera onean dagoen ibai ertzeko basoa dauka eta, duela gutxia arte, bertako karramarroa, Euskal Herrian zeharo desagertuta dagoen espeziea.

> “Argi dago autobidearen aukera aukerarik txarrena dela”

Faunari dagokionez, animalientzako habitat diren 273 hektarea desagertuko dira guztira, tarte batzuetan faunari alde batetik bestera ibiltzeko askatasuna moztuz, autobidea honek berak sortzen duen hesi efektuaren eraginez.

Ikusteko eragina ere oso sakona izango da: 21 zubibidek 6,5 kilometro osatuko dute. Aipatzekoa da, adibidez, ezponden kasua. 47 tokitan ezpondek 30 metroko garaiera gainditzen dute; 16 puntutan ezponda hauek 50 metrotik gorakoak dira. Arrasateren kasuan San Josepe harrobian 86 metro garai izango da. Eragin hau are handiagoa izango da jadanik egindako eta egin nahi diren lanen efektu sinergikoa dela eta. Ur-isurkinen kolektorea, San Josepeko harrobia bera eta autobidea, lastertasun handiko trena...

Garraioaren beharra asetzeko beste aukera asko daude: dauden errepideak hobetzea, auto elektrikoa, zerbitzu publikoa (autobus publikoak)... etabar. Herritarrok gure arteko eztabaida lotesle bat behar dugu gure gain hainbeste eragiten duten gaiei buruz. Argi dago autobidearen aukera, aukerarik txarrena dela.

* Eibar-Gasteiz autobidearen aurkako Deba Garaiko taldea


MERKEKILO
Oihalak
Kortinak
Ferrerias, 5
Tel.: 943 79 15 00
Zorionak Arrasate!

JUBAR
ATEAK. S.L.®
• BURDINAZKO ATEAK
• ETA PERTSIANAK.
• AUTOMATISMOAK.
• KONPONKETAK.
Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

Ipek
Denda
Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE




# Bizimodua merkeagotu.

Aurtengo udan, **Eusko Jaurlaritzaren eta kutxaren Gazte Txartela**rekin, bizimodua merkeagotzeko aukera aparta daukak/n. Hainbat deskontutaz baliatzeko egokiera eskaintzen baitu , milaka saltegi, bidai agentzia, ikuskizun, kirol-instalazio, museo eta abarretan.

Eta **Gazte Txartel Finantzarioa**rekin, berriz, hemengo eta mundu guztiko kutxazainetan dirua atera ahal izango dun/k eta erosketak milaka dendatan ordaindu. Gainera, **kutxa**k antolatutako jarduera guztietan, makina bat deskontu eta zozketaren onurak izango ditun/k eskura.

Hator informazio bila **Arrasate-Portalo**iko bulegoko **Gaztekutxa gunera**.

Hi. Hirekin.
gaztekutxa
Tú. Contigo.

www.gaztekutxa.net e-mail: gaztekutxa@kutxa.es Tel: 900 40 41 42


AVANTIME
Jai zoriontsuak!
RENAULT
MECA TAILERRAK
ARRASATE Tel.: 943 71 24 72 • BERGARA Tel.: 943 76 40 68


JANTZIDENDA
LASAGABASTER
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55
ETXE APAINKETA

## astea bi hitzetan

**■ Kale agerraldiak**
Ostiralean bi kale agerraldi izan ziren Arrasaten. Batetik, EHEk, IAk, LABek eta Sortzen Ikasbatuaz taldeek deituta, udaletxe aurreko plazan bildu zen jendea, euskal irakaskuntzaren alde.

Beste kale agerraldi bat ere egin zen ostiralean, Pilar Mondragon iheslari arrasatearraren Espainiaratzea salatzeko, Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituta.

Azkenik, ekologistek eta, tartean Arrasateko Besaide mendizale elkarteak, Eibar-Gasteiz autobidearen aurkako kale agerraldia deitu zuten larunbaterako. Administrazioaren jokaera salatu zuten.

**■ Hitzarmena Aita-Mennirekin**
Luis Maria Bandres Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako aldunak eta Jose Mari Loiti Arrasateko alkateak Aita-Mennirekin hitzarmena sinatu zuten ostiralean. Honen arabera, egoitza beharrean dauden adineko 15 pertsona onartuko ditu Aita-Mennik. Pertsona hauen egonaldia Arrasateko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta erabiltzaileek berek ordainduko dute.

**■ Zaldispe-Osinaga**
Dagoeneko hasi dira Zaldispe eta Osiña inguruak lotuko dituen zubia egiteko lanak. Zubia 24 metro luze, 3,5 metro zabal eta 4 metro garai izango da eta 54 milioi pta.ko aurrekontua izango du. Lanak lau edo bost hilabetez luzatuko dira.



**■ ATB hauteskundeetan**
Igandean ATBk lan berezia egin zuen ikus-entzuleei hauteskundeen berri zuzena eta zehatza emateko. Hamazazpi lagunek jo eta ke egin zuten lan, 21:00etatik 24:00ak arte zuzenean emititu zen programa berezia egiteko.

Platoan Maria Agirre, Mikel Lezamiz eta Mikel Irizar izan genituen balorazioak egiten. Emaitza ikusita, jendea pozik geratu omen da eta noski, baita geu ere, egindako lanak balio izan du eta.

“1972an euskaldundu nintzen eta berehala konturatu euskaraz irakurtzeko ez zegoela larregirik. 1974an, artikulu bat bidali *Zeruko Argia*ra eta argitaratu egin zidaten, nire harridurarako. Horrelaxe hasi nintzen. Uste dut kazetari frustratu bat naizela. Goi ikasketak egiteari ekin nionean, 1965ean, ez niri ez inguruko inori otu zitzaigun Kazetaritza ikastea, orduko prentsa guztia Francoren aldekoa baitzen”.

**JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL**
*El Diario Vasco*
1999ko ekainaren 15ean.



OZAETA JAUREGIA
Tel.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29
BERGARA

LASA
*Jatetxea*

# 18 ostirala

**■ ZINEA**
*Como caido del cielo*, Alai zineman, 22:00etan.

**■ MUSIKA KONTZERTUA**
Arrasate Musikaleko talde instrumentalaren emanaldia Amaian, 19:00etan.

**■ JURASSIC BAND**
*The Jurassic Band* taldeak kontzertua eskainiko du Mondragon hotelean 19:30ean.

**■ KONTZERTUA GAZTETXEAN**
*Astrozombies* eta *Teen Dog's* donostiarrak eta *Fist Fucking* taldeak arituko dira 21:00etan gaztetxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala, 18**
• Gauez eta egunez: Morales, San Andres

**Larunbata, 19**
• Gauez eta egunez: Azkoaga, Ferrerias

**Igandea, 20**
• Gauez eta egunez: Español, Iturriotz

**Astelehena, 21**
• Gauez eta egunez: Korkuera, Musakola

**Asteartea, 22**
• Gauez eta egunez: Irizar, Erguin

**Asteazkena, 23**
• Gauez eta egunez: Amezua, Santa Marina

**Osteguna, 24**
• Gauez eta egunez: Zabala, Zarugalde

# 19 larunbata

**■ ZINEA**
*Como caido del cielo*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

**■ USAKUME TIRAKERA**
Leintze elkarteak antolatuta, Kaiolako II Usakume Tiraketa, 11:00etan, San Kristobal hilerriaren ondoan.

**■ PILOTA TXAPELKETA**
XX pilota txapelketa, 11:00etan, Iturripen.

**■ MUSAKOLAKO ASTOA**
Musakolako astoaren inaugurazioa egingo da 12:30ean. 13:00etan herri txikiteoa. 14:00etan bazkaria, Kataiden.

**■ XAKE TXAPELKETA**
Xake partida lasterren txapelketa Sebero Altuben, 17:00etan.

**■ MUS TXAPELKETA**
Emakumezkoen III mus txapelketa, 17:00etan, Mondragon hotelean.

**■ HAUR DANBORRADA**
Haurren danborrada, 19:00etan, Nafarroa etorbidetik abiatuta.

**■ KONTZERTUA GAZTETXEAN**
*Cerebral Efusion* bilbotarrak eta *Apocalyptic* ermutarrek death metal jaialdia eskainiko dute 22:00etan, gaztetxean.

**■ KONTZERTUA JAM ARETOAN**
*Mercyful Fate* eta *Radio Terror* taldeak arituko dira Bergarako Jam aretoan, 22:00etan.

# 20 igandea

**■ ZINEA**
*Asesinato en 8 mm* Alai zineman, 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

**■ GOITIBEHERA TXAPELKETA**
IV Goitibehera txapelketa 11:00etan, Udala auzoan.

**■ DANTZARIAK**
Dantzari taldeen kalejira eta dantzak, 11:45ean. Dantzaldia 17:00etan, plazan.

**■ DANTZALDIA**
*Txinparta* taldearekin 19:00etan, herriko plazan.

# 21 astelehena

**■ ZINEA**
*Asesinato en 8 mm*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

# 22 asteartea

**■ ZINEA**
*Asesinato en 8 mm*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

**■ TXOZNETAKO EGITARA**

**Ekainak 23**
01:30 *Hika* antzerki taldeak " taularatuko du.

**Ekainak 24**
24:00 Perkusio eta saltsa kon

**Ekainak 25**
14:30 Herri bazkaria "Euska trikitilariak.

**Ekainak 26**
18:00 Mus, partxis, futbolin, banaketa.
23:00 *Anger, Egux* eta *Bruta*

MARKO-JARTZEAK
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84


EZARKI
OINETAKO KONPONKETAK
Maalako Errebala, 8 • ARRASATE

## 23 asteazkena

**■ SAN JUANAK**

•**15:00** txistularien diana.

•**16:00** etxafleroak eta bonba japoniarrak.

•**17:00** Sebastopoleko Titiriteroak herriko plazan.

•**19:30** Salbea, San Joan parrokian.

•**21:30** Errementari dantza, Nafarroa Etorbidetik hasita.

•**22:30** San Joan Sua, herriko plazan.

•**23:00** Nagusien danborrada, Nafarroa Etorbidetik hasita.

•**01:00** Dantzaldia plazan, *Guabela* taldearekin.

**SANJUANETAN**

aultza delikatuak" antzezlana

tua perkusio taldearekin.

soak Euskal Herrira" eta

ta tortila lehiaketa eta pintxo

*lody*ren kontzertua.

## 24 osteguna

**■ SAN JUANAK**

•**08:30** diana Arrasateko dultzaineroekin.

•**09:00** entzierroa.

•**11:00** bigantxak Laubide plazan.

•**11:00** meza nagusia San Joan parrokian.

•**11:00** Arrasateko Erraldoien eta Kilikien konpartsa.

•**11:30** Musika Bandaren kalejira.

•**12:00** ohorezko aurreskua eta San Joan zortzikoa plazan.

•**12:30** erretiratuei omenaldia Abaroan.

•**13:00** Arrasate Musikaleko bandaren kontzertua Monterronen.

•**17:00** Arrasateko dultzaineroen kalejira.

•**17:15** Unai Iturriaga eta Jon Maia Seberon.

•**20:00** *Pikor* antzerki taldea herriko kaleetan.

•**20:00** EEBBtik etorritako Lowe familiaren kontzertua San Frantzisko elizan.

• **21:00** dragoi jana herriko plazan.

• **23:30** dantzaldia Egan taldearekin, herriko plàzan.

• **24:00** suzko erruberak Santa Barbaran.

## 25 ostirala

**■ SAN JUANAK**

•**08:30** diana, Arrasateko dultzaineroekin.

•**09:00** entzierroa.

•**10:30** bakailao lehiaketa herriko plazan, SUDCek antolatuta.

•**12:00** ongi etorria *Eguzki Laru*ri, Zaldibarren.

•**12:30** kalejira *Eguzki Laru* eta *Txatunga Benbe* taldearekin.

•**16:00** *Eguzki Laru*ren jolastokia, Zaldibarren.

•**17:00** *Oiloloke Xoua* Zaldibarren.

•**19:00** Erraldoi eta Kilikien konpartsa.

•**19:00** zezen jaialdia, plazan.

•**19:00** txalaparta, herriko plazan.

•**20:00** kalejira *Los Perez de Nochistlan* mariatxi taldearekin.

•**23:00** dantzaldia herriko plazan, Almen taldearekin.

•**23:00** *Los Perez de Nochistlan* Monterronen.

## 26 larunbata

**■ SAN JUANAK**

•**08:30** diana.

•**09:00** entzierroa.

•**11:00** *Incansables* fanfarrea.

•**11:00** Arrasate Hiria VIII Loiola rallyko karreretako autoen erakusketa plazan.

•**11:30** erraldoien bilkura.

•**12:00** Arrasate Hiria Loiola rallyaren irteera, portaloian.

•**12:30** trikitilariak.

•**18:30** konpartsa.

•**19:00** *Incansables* fanfarrearen kalejira.

•**20:00** Bilboko Elkarte koralaren emanaldia Amaia antzokian.

•**23:00** dantzaldia plazan, *Luhartz* taldearekin.

## 27 igandea

**■ SAN JUANAK**

•**13:15** Arrasate Hiria rallyaren itzulera plazara.

•**19:00** Tronpa kontzertua Amaia antzokian.

**ZABALA**
**oinetakoak**
51 urtean elkarrekin ibili gara
**Ospa ditzagun San Juanak**
**Erdiko kale, 18 • Tel.: 943 79 14 27**

MiCRO's iNFORMATICA
- Ordenagailuak
- Inprimagailuak
- Konponketak
- Eguneratzeak
- Osagarriak
- Internet

Okendo, 1 • Tel./Faxa: 943 77 16 68
E-Mail: microsinformatica@jet.es

# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



San Juanetan

dena gertu.



FAGOR

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

# Hiru arrasatear Batzar Nagusietan



Xabier Zubizarreta.



Itxaso Garai.



Rafi Romero.

Udal hauteskundeek adinako oihartzunik ez izan arren, igandean ekainaren 13an Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagaiak ere aukeratu ziren.

Emaitzen arabera, datorren legealdian Arrasatek hiru batzarkide izango ditu Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

Batetik, EHk Xabier Zubizarreta aurkeztu zuen zerrendaburu Deba-Urola barrutian eta nola bere taldeak lau atera dituen, ba hantxe izango da Arrasateko alkate hautatua.

EAJ-EAk Itsaso Garai aurkeztu zuen laugarren lekuan. Koalizio honek zazpi batzarkide lortu ditu barruti honetan. Beraz, Itsaso ere hantxe izango da.

Azkenik, Rafi Romero Alderdi Sozialistaren zerrendan bigarren zihoan eta errepikatu egingo du.

Batzarkide berrien izenak ekainaren 28an aldarrikatuko dira modu ofizialean. Uztailaren 9a baino lehen eratuko dira Batzar Nagusiak, Tolosan seguruenik.

# Haurren danborrada

Larunbatean, sanjuanen egitarauaren barruan, SUDCek urtero antolatzen duen haurren danborrada aterako da iluntzeko 19:00etan. Arrasateko Musika Bandak lagunduta, Nafarroa Etorbidean abiatuko da eta Garibai Etorbidea, Maala kalea eta Erdiko kalea zeharkatu ondoren, Herriko plazan bukatuko da.



**Zumaia Arizabaleta, banderaduna.** **Lorea Urrutxua, SUDCeko banderaduna.** **Amaiur Uribesalgo, Ikurrinduna.** **Jokin Zubiria, jenerala.**

## Jaiotzak

- Markel Ochoa Arana, maiatzaren 31n.
- Xabier Mugica Iturbe, ekainaren 2an.
- Daniel Unanue Sebastian, ekainaren 3an.
- Leire Obregon Vega, ekainaren 5ean.
- Iker Bengoa Iria, ekainaren 6an.
- Jon Errondosoro Martinez, ekainaren 7an.
- Irati Axpe Layana, ekainaren 7an.

## Ezkontzak

- Jacinto San Jeronimo eta Rosa Barquero, ekainaren 5ean.
- Enrique de Tena eta Maria Luisa Miguel, ekainren 5ean.
- Jose Igancio Azkue eta Maite Valdezate, ekainaren 12an.
- Roberto Mendi eta Miren Jaione Lasanta, ekainaren 12an.
- Iñigo Urrutia eta Amaia Abarrategi, ekainaren 12an.

## Hildakoak

- Juan Jose Ruiz Echeguia, 48 urte, ekainaren 3an.
- Isabel Fernandez de Jauregi, 86 urte, ekainaren 3an.
- Artimia Fernandez Fernandez, 81 urte, ekainaren 4an.
- Jose Maria Uribesalgo Arana, 79 urte, ekainaren 3an.
- Candido Uriarte Eskibel, 74 urte, ekainaren 4an.
- Jose Murguiondo Etxabe, 90 urte, ekainaren 12an.
- Luisa Agirregabiria Zelaia, 68 urte, ekainaren 14an.

AREITIO KIROLAK
*Ondo pasau San Juanak*
*Zarugalde, 35*
*ARRASATE*
*Tel.: 943 79 38 38*

# Gau Txoriko Miren Julene sarituta



Miren Julene Iturbe benetan pozik geratu da jasotako sariarekin.

Gipuzkoako Ostalarien Elkarteak Miren Julene Iturbe Moñua tabernari arrasatearra saritu du Gau Txori tabernako barran egindako lanagatik. Lan horretan apirilaren 30a arte aritu da bere anai-arrebekin batera, orain dela 70 urte Uribe auzoan irekitako taberna-jatetxean. Orain, erretiratua dago.

Sari banaketa asteartean egin zen, Donostiako Kursaal jauregian. Miren Julenez gain, Gipuzkoako beste lau tabernari ere saritu zituzten.

Tabernarien jaia ospatu zen hantxe. 450 lagun bildu ziren eta Martin Berasategi sukaldariak prestatutako jakiak dastatu zituzten.

Berez, jai hau uztailaren 26an da, baina jai hartzeko egun txarra denez, aurreratu egin zuten.

Saria ez zitzaion guztiz berria egin Miren Juleneri. Izan ere, bere amak, Basilisa Muñoak, 1987an jaso zuen sari bera. Zorionak, beraz!

## Edukiontziak udarako

Apirilerako iragarri ziren plastikoa jasotzeko edukiontziak. Orain jakin denez, abuztua arte atzeratuko dira. Bi arrazoi nagusi daude honetarako. Batetik, mankomunitate guztiak ez dira ados jarri edukiontzi berriak jartzeko orduan. Hauteskundeek ere zuzenean eragin dute atzerapenean. Izan ere, mankomunitateko arduradun politikoak udal ordezkariek hautatzen dituztenez, bada horixe, itxaron egin behar.

## Nortasun agiriak

Nortasun agiriak egin edo berrizteko izan den eskaera handiaren ondorioz, Espainiako Barne Ministerioko funtzionarioak ekainaren 29an etorriko dira berriro.

Pasa den asteazkenean 188 nortasun agiri egin ziren, baina dagoeneko jaso dira 150 eskaera inguru. Dena dela, uztailetik aurrera, hilabetean behin etortzeko asmoa dute. Orduak oraindik ezartzeke daude.

## Ardi Beltza



*Ardi Beltza* izeneko hilabetekaria Monterronen aurkeztu zen. 100-120 orrialde inguru izango ditu eta bi edizio. Bata, euskarazkoa, Euskal Herrian banatuko dena, eta bestea erdarazkoa, Espainiara eta nazioartera begira egindakoa.

Aldizkari berri hau, *Egin* itxi ondoren atera da. Izan ere, haren lekua bete duen *Gara* egunkariak, ez dauka ikerkuntza talderik. Aldiz, kazetaritzan ikerkuntza arloa beharrezkoa delakoan, *Egin*eko ikerkuntza taldeak beste langile batzuk bildu eta aipatutako hilabetekari berria plazaratuko dute. Aurkezpen ekitaldian Pepe Rei kazetaria eta idazlea eta Igor Eguren bertsolaria eta *Egin*eko langile ohia izan ziren.

Harpidetza egin nahi duenak Arranora jo dezake.


ARRABALA



Ondo pasau San Juanak
Maalako Errabala, 29
Tel.: 943 79 23 40
ARRASATE

LASER DEPILAZIOA
• Behin betikoa, azkarra, ez du minik egiten
• Depilazio sistemak, zerbitzu medikuaren bermearekin
• Aholkularitza eta aurrekontuak
Itaca Zentru Mediku eta Estetikoa
Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS. 492/98

ARANBURU
JOSTUNDEGIA
Urte askoko esperientzia zuen esku
Maalako errabala, 23 • ARRASATE
Tel: 943 79 13 07

Xume
Oihalak eta kortinak
Joskintza
Zabaldu berria!
Errekabarren kalea, 14
Aretxabaleta • Tel.: 943 79 11 19

ARAOTZ Merenderua
Ingurune zoragarrian, lagun artean ondo pasatzeko aukera
Araotz auzoa, 2 • OÑATI
Tel.: 943 78 35 26






KURRUXKO
Okindegia
Urdaitegia
Gozotegia
Bakailaoa
Bañez doktorea, 12
Tel.: 943 79 22 57

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK





BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA • LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxa: 943 79 41 82

**ARRASATE**



*San Juanetan primeran ibiltzeko*








TAKOLO AUTOAK

*Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia*
*Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE*

OPEL



cerámicas URIBARRI

Zeramika erakusketa eta salmenta

Uribarri etorbidea, 22 - B • Tel. / faxa: 943 79 81 80
ARRASATE

SAN JOAN JAI ZORIONTSUAK!




ZABALETA

LVRRINDEGIA / OPARIAK

Maisu Arano, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 12 32

ZABALETA

ZABALETA

# Garaipenaren poza




“Gizonari berbatik eta idiari adarretik”, dio esaera zaharrak. Inoiz Xabier Zubizarretak esana zuen irabaziz gero San Frantzisko osteko iturrian sartuko zela eta lagunek betearazi zioten esandakoa. Azkenean, baina, EHko zinegotzi guztiak sartu ziren. Bazuten motiborik murgildua hartzeko: ekainaren 13an EHk garaipen ikusgarria lortu zuen Arrasaten.



## Sekreturik ez

Botoa sekretua dela eta, etxolatxoak ezartzen dira hautesmahaietan, kortina eta guzti. Gregorio Gallanak, ordea, ez zuen kortina ixteko beharrik sentitu.



## Mahai inguruan

Hiru ordu falta zirela hauteskunde kanpaina bukatzeko, EB, EH, EAJ-EA eta PSE-EE alderdietako ordezkariak ATBren mahai inguruan elkartu ziren, ordubeteko eztabaida saio baterako. Lasai eta elkarlanerako prest agertu ziren denok.



## On egin!

Agustin Hordillo San Andresko hautesmahai batean egon zen apoderatu gisa. Dena den, hamaiketakoa egiteko orduan, gogoz sartu zion hortza ogibitartekoari.

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.



ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK
*Basabe Industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABALETA*
*Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26*

PAPER DENDA
J. URIARTE
GRUPO TAMAYO
Eskerrik asko eta ondo igaro San Juanak
Ferrerias kalea, 32 • Tel..: 943 77 03 80 • 20500 ARRASATE

Aupa San Juanak!
Aupa Arrasate!
OKORETEGI
KAFETEGIA
Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.:943 77 03 62

# Udalbatza berria

Lehen bezala, 21 zinegotzik osatuko dute udalbatza berria. Batezbeste 44 urteko zinegotziak ditugu. Gazteenak 26 urte ditu. Zaharrenak, 60.

Bederatzi berriak dira —bost EHkoak, bi EAJ-EAkoak, bat PSE-EEkoa eta bat PPkoa—: bost gizon eta lau emakume. Euretariko bi, Xabier Zubizarreta eta Itxaso Garai Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide dira.



**Xabier Zubizarreta, 54, informatikaria (Fagor Automation).**



**Ino Galparsoro, 52, soziologoa (Copreci).**



**Utzune Urrizalki, 28, administraria (Euskadiko Kutxa).**



**Juan Luis Arexolaleiba, 34, komertziala (Emun).**



**Juan Ramon Garai, 49, sindikalista (Cerrajera).**



**Jose Ramon Arkauz, 44, komertziala (Fagor Garagartza).**



**Haritz Azkarraga, 26, ingeniaria (LKS Intelkom).**



**Larraitz Trojaola, 27, Enpresa lizentziaduna (langabezian).**



**Jose Maria Loiti, 60, maisu industriala.**



**Amaia Larrañaga, 41, irakaslea (La Merced Ikastetxea).**



**M. Angeles Iñurritegi, 47, idazkaria (Eskola Politeknikoa).**



**J. Antonio Barriocanal, 47, teknikoa (Fagor Ederlan).**



**Miren Itxaso Garai, 31, enpresa lizentziaduna.**



**Jose Maria Urizar, 58, enplegatua (CES).**



**Francisco Garcia, 46, kooperatibista (Fagor Garagartza).**



**Blanca Roncal, 48, medikua (Osakidetza).**



**Matilde Martin, 47, biltegiko langilea (Auzo Lagun).**



**Ismael Gonzalez, 44, enplegatua (Gelma).**



**Antonio Palacios, 31, Enpresa lizentziaduna.**



**Jose R. Prieto, 60, eraikitzailea.**



**Joseba Ugalde, 47, Fagorreko Kontseilu Sozialeko aholkularia.**






# Karreretako auto klasiko

Gipuzkoako parajeak ezagutu eta bide batez, lastertasunaz gozatu. Horixe da Arrasate Hiria-Loiola rallyaren VIII aldiaren helburua. Aurten, San Juanak direla eta, Arrasateraino hurbilduko da, Durangoko Eskuderia Oizek antolatuta.

Baina ez da edozelango rallya izango. Karreretako auto klasikoen rallya izango da hau. Beraz, gidariek parajeaz gozatzen duten bitartean, beste guztiok haien auto ederrez gozatuko dugu. Ekainaren 26an aterako dira Arrasatetik eta bi egunean zehar 343 km.ko ibilbidea egingo dute.




**Honelako autoak ikusiko dira Arrasaten San Juanetan.**

### RALLYAREN BEREZITASUNAK

Hogeita hamar urte gutxienez izan behar dute rallyan arituko diren autoek. Baina ez hori bakarrik, karreretako autoak izan behar dira eta: Phorsheak, Renault Alpineak eta antzekoak. Parte hartzaileek ibilbidearen mapa bana jasoko dute eta jeneralean ez dutenez jakiten nondik nora jo behar duten, galtzeko arriskua ere badute. Hortxe beraz, probaren abentura.

Larunbatean 09:00etatik 10:30era Zaldibarko frontoian egongo dira ikusgai auto guztiak. 10:00etatik 11:30era egiaztapenak egingo dira. Zaldibartik plazara pasako dira eguerdia arte eta Portailotik abiatuko dira. Igandean, berriz, 09:30ean aterako dira, Tolosako Foruen enparantzatik. Arrasatera arratsaldeko 13:15ean iristea espero da. Arratsaldeko 16:00etan sari banaketa egingo da, herriko plazan.

### IBILBIDEA

343 km.ko ibilbidea egingo dute parte hartzaileek, bi zatitan. Lehenengo egunean hiru zatiko ibilbidea zeharkatuko dute. Arrasatetik Durangora abiatuko dira (57 km). Handik Loiolaraino (67 km) eta Loiolatik Tolosa ondoko Anoetara (97 km), hirugarren zatian. Bigarren egunean gelditzen diren 122 km.ak egingo dituzte. Tolosan aterako dira goizeko 09:30ean eta Berga-

J. Markiegi.
Gizonezkoen moda
Olarte, 2
Tel.: 943 79 15 32
AUPA SAN JUANAK!
ARRASATE

Zubizarreta
GALERIA 44
Denda berezia
Ondo pasatu San Juanak
Zerkaosteta, 8 Tel.: 943 - 79 90 50 • ARRASATE

# n Arrasate hiria rallya

raraino hurbilduko dira, handik Arrasateraino itzultzeko.

**HISTORIA PISKA BAT**

1976an egin zen lehenengo Loiola rallya. Abiadura rallya izan zen eta garaipena Kakok eta Larrinagak eskuratu zuten, Renault Alpine batekin. Hurrengo urtean Alpine bateko gidariek lortu zuten erramu koroa: Praderak eta Bascaranek. 1978an Sunsundergek eta Larrinagak irabazi zuten, Porsche batekin eta 1979an, errepikatu egin zuten. 1980an izan zen abiadura rallyaren azken aldia. Orduan Herrero eta Minguez izan ziren txapeldunak, Talbot batekin.

Istripu bat tarteko, 1993a arte laga zitzaion rallya egiteari. Orduan, karreretako auto klasikoen rallya egiteari ekin zioten, baina abidadurari baino abenturari eman zitzaion garrantzia. Ortiz eta Alonso izan ziren irabazleak, Triumph bat gidatzen. 1995an, orain arteko azken rallyan, Valle eta Goiarrola izan ziren irabazleak, oraingoan MG B batekin.




**Iaz Bilbon egin zen rallyaren erakusketa.**


# Edertu

ile apaindegia




San Joan jai zoriontsuak izan!!

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

# Umeen moda




Garibai, 6
ARRASATE
943 79 97 86

Ferrerias, 34
ARRASATE
943 79 86 50

# Euskal Herriko Erraldoien bilkura

Goizeko zortzi eta erdietan, sanjuanetako egun bakoitzean bezala, Arrasateko dultzaineroek diana joko dute, ekainaren 26an, entzierroaren aurretik. Egun horretan, ordea, ez dira bakarrik ibiliko. Euskal Herriko dultzainero asko etorriko dira Arrasatera: Iruñekoak, Bilbokoak, Elgoibarkoak, Etxarri-Aranazkoak eta Txantreakoak. Izan ere, egun horretan, erraldoien bilkura handia egingo da Arrasaten eta badakizue, erraldoiekin batera, dultzaina jotzaileak izaten dira, baztertrak girotzen.

San Joan jaien hirugarren egunean, goizeko 11:30ean, Zaldibarren bilduko dira Euskal Herriko hainbat herritatik datozen konpartsak. Handik, dultzainaren soinuen martxan, Biteri etorbidera egingo dute. Ondoren Garibai etorbidea, Maalako errabala, Portaloia, Olarte kalea, Arbolapeta, Zurgin kantoi, Ferrerias, Portaloia berriro, Iturriotz eta Erdiko kalea igaroko dituzte, herriko plazara iritsi aurretik.

Beti ere, han eta hemen atsedenak hartuz, gehienetan egin ohi duten gisan.

Ondoren, kalejira egingo dute, bazkalordua arte. Jendeak bazkaltzen duen bitartean, erraldoiak herriko plazan geratuko dira. Arratsaldean, berriz, sei eta erdietan, konpartsen kalejira egingo da berriro.

Egun handia eta koloretsua, Euskal Herriko erraldoien konpartsek eta dultzaineroek eskainiko dutena. Ez galtzeko horietakoa


Konpainia onean izango dira ekainaren 26an Arrasateko buruhandiak.

## Etorriko diren erraldoien konpartsak

| Konpartsak | Zenbat | Pertsonaiak | Noizkoak |
|---|---|---|---|
| Zangotzakoak | lau | errege kristauak eta indioak | 1990 |
| Ondalanekoak | lau | alkatea, txakolineroa, zirgaria eta marinela | |
| Ondalanekoak (txikia) | lau | pilotaria, esne saltzailea, ikazkina eta laialaria | |
| Gasteizkoak | lau | kartetako lau erregeak | 1991 |
| Tafallakoak | lau | Bianako printzea, Blanca Nafarroakoa, Amaiurko gudaria eta amona | 1986 |
| Uhartekoak | lau | Errege Katolikoak eta etxazainen bikotea | 1942 eta 1982 |
| Arrasatekoak | lau | Martin Bañez Artazubiaga, Santxa Otsoa, Gomez Gonzalez Butroikoa eta Elbira Leibakoa | 1985 |
















San Juanetan
eta udan zehar
prezio bereziak
errebelatuetan.

Erroilua
errebelatuz
gero, beste bat
dohainik



- Ezkontza eta jaunartzetarako erreportajeak
- Kalitatezko errebelatuak

Argazki kamerak
prezio oso
interesgarrietan.
Zatoz ikustera!!

Zerkaosteta 5. • ARRASATE • Tel.: 943 79 66 87

# Otsagabiako taldea, Haur Dantzarien Egunean



Bostehun bat haur arituko dira dantzan herriko kaleetan zehar.

Ekainaren 20an Euskal Herriko 500 bat haur dantzari bilduko dira Arrasaten, aurtengo Haur Dantzarien Egunerako.

Aurten talde hauek etorriko dira kanpotik: Aramaio, Beasain, Bermeo eta Otsagabia. Deba Bailaratik ere izango ditugu zenbait: Eskoriatza, Aretxabaleta, Bergara, Antzuola eta Oñati. Arrasatek, azken urteotan bezala, bi talde izango ditu: Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostaitz.

Igandean, beraz, goizeko 10:30etan bilduko dira talde guztiak Nafarroako etorbidean. Hortik aurrera, jai giroa izango da nagusi haur dantzarien inguruan. 11:45ean kalejiran eta dantzan hasiko dira. Garai batean auzoetara ere joaten ziren, baina gaur egun erdigunean egiten dute dantzan, aurrez ezarritako bost gunetan: herriko plazan, Abaroan, Monte tabernaren aurrean, Sebero Altube plazan eta Arbolapetan. Ordu erdiro taldeek tokiz aldatuko dute.

Aurtengo berezitasunik handiena, akaso, Otsagabiako taldeak ekarriko du. Talde hau sasoi batean Muskildiko kofradiaren barruan zegoen, eta apenas irteten zen herritik kanpo. Makila joko bereziak dituzte, hango pertsona ospetsuak irudikatuz, kriskitinak ere jotzen dituzte, lepoan xingola bereziak... Hitz batean esateko, talde ikusgarria.

### TALDE GUTXIAGO

Garai batean talde gehiago etortzen ziren, bakoitza hirurogei bat haur dantzarirekin. Gaur egun, berriz, talde gutxiago eta txikiagoak: hogeita hamar eta berrogei artekoak.

Sasoi batean —Danok elkartea orain hogeita hamar bat urte hasi zen Haur Dantzarien Eguna antolatzen, gehienetan San Juanen aurreko igandeetan— ume asko etorri bai, baina nahiko erraza zen familiak aurkitzea haurrei bazkaltzen emateko. Gaur egun, ostera, sekulako eragozpenak dituzte familiak aurkitzeko. Jende askok alde egiten du herritik eta beste asko asperturik-edo daude formula horrekin. Horregatik, familietara eraman ezin dituzten haurrak elkarteetara eramaten dituzte.


MENDIZABAL



okindegia

Sebero Altube, 2 • Tel.: 943 79 89 60

ARRASATE



1987-VI-19

# KAJOI

1999-VI-19

## 12. URTEUURRENEAN

pintxoak jatera gonbidatzen zaitu

50 pzta. bakoitza

1996-VI-19

# OSTANTZ

## 3.urteurrena

1999-VI-19

ESKERRIK ASKO ARRASATE


3 txartel
Argazki albuma
Pierre Cardin Bizkar zorroa
Aqua-Sports Kodak Kamera
Pierre Cardin Bidaia Poltsa
6 txartel
Fun Flash Kodak Kamera
10 txartel
B&C Elastikoa
Relcom Erlojua
oooh!!
Poster Neurrira Handitzea 30x45
Argazki denda
Uribarri etorbidea, 1 • Tel.: 943 77 13 64
20500 ARRASATE


Super Armeko
FABRICACION PROPIA
ARMARIOS A MEDIDA
CCION COCINAS
06
ZUZEN-ZUZENEAN
FABRIKATIK
ZURE ETXERA
Super Armeko
Sukalderako Altzarien Fabrika
Kataide industrialdea • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 943 79 91 75

# Emakumeen indarra, danborradaren garra

**Berrogei dira, emakumezkoak eta sekulako umorea dute. Berauek osatzen dute aurtengo nagusien danborradan ikusiko dugun konpainia berrietako bat.**

Bi talde sortu dira, danborradan parte hartzeko prest. Bat "Musean egiten duten Emakumeak" eta hauen lagunek osatutako Beti Alai izenekoa, eta bestea bikotez osaturikoa.

Jakin izan dugunez, danborrada gainbeheran zihoala eta, laguntza eskaera jaso zuen emakumezkoen taldeak eta, birritan pentsatu barik, aurrera egin zuen. Hilabete eta erdi pasatu ostean, bi konpainia berri sortu dira. Honetaz guztiaz hitz egiteko, "Musean egiten duten Emakumeak" taldeko lau kiderekin izan ginen berbetan.

Maria Angeles Muruamendiarazek, Mari Karmen Billarrek, Arantza Barrutiak eta Maribi Indak hartu dute emakumezkoen konpainiaren ardura. Dagoeneko ia prest dute konpainia berri honen estreinaldia. Hori bai, nahiko lan eta komeria pasatu eta gero, izan ere, hilabete eta erdi



Luis Mari Muruamendiaraz, Rafa Fernandez, Felix Gonzalez "Txiki" eta Luis Okina "Maño" 1978an.







besterik ez dute izan dena prestatzeko.

## HERRIARENGATIK

Apirilean hasi zen dena. SUDC elkartea zeharo kezkatuta zebilen danborradaren etorkizun beltza ikusita. Zerbait egin beharra zegoen eta musean jokatzen duten emakume talde honen umorea ezagututa, Arantza Barrutiarengana joan ziren. "Azken urteotan danborrada gainbeheran zihoala esan zidaten eta hura berpiztu beharra zegoela. Besteekin hitz egin nuen eta, a zer nolako sorpresa, animatu zen jende kopurua ikusita!

"Dena den, esan baita ere, inori ezer esateke, baina behin edo behin esan genuela geure artean halako zerbait egin behar genuela. Honetaz gain, Mari Angelesek lan handia egin zuen jende guztia batzeko, izan ere, 30-40 pertsona eskatu zizkigun SUDCek".

Besteek baino erraztasun handiagoa du Maria Angelesek; gehienok ezagutzen dugu haren gozotegia; noski, jendaurreko lan honek asko lagundu zuen jendea bilatzeko orduan.

"Ez zen hain zaila izan, ez pentsa. Herriarengatik egiten den zerbait zela ikusita, jendea askoz ere errezago animatu zen. Pentsa, beste emakume talde bat ere bazegoen danborradarako nahiko animatuta. Kontua da eurak bakarrik ez zirela ausartzen; ostera, gu irtengo ginela jakindakoan, gizonak konbentzitu eta hauek ere aterako dira. Pentsa; azkenean, gure adiskide asko etortzeko inbidiaz geratu dira".



**1970. urtean Ana Jesus Ugarteburu bandera eramaten Maala kalean.**

## HISTORIA APUR BAT

San Joan bezperan Arrasateri zerbait ikusgarria falta zitzaiola eta, Jose Markiegi hasi zen bazterrak astintzen. Donostiako danborrada 1836az geroztik kalean zebilen eta hura adibidetzat hartuz, Udalpe elkarteak asmoa bere egin eta lehenengo Danborrada kalera atera zuen. 1964. urtea arte jarraitu zuen elkarte honek danborrada bultzatzen. Gero, SUDC elkarteak hartu zuen txanda, Jose *Casinok* lan handia eginez.

**1961:** Lehenengo danborrada. Luis Maria Maidagan izan zen danborjole nagusia 1965a arte.
**1964:** SUDC hasten da danborrada antolatzen.
**1965:** Jose Luis Mendieta danborjole nagusi.
**1968:** Rafa Fernandez danborjole nagusi.
**1978:** Zuzendari berria Luis Mari Muruamendiaraz da. Luis Okina "Mañok" danborjoleen gidaritza hartu zuen, gaur arte.
**1981:** Erregina aukeratzeari lagatzen zaio.
**1988:** Aitor Zeziaga zuzendari.
**1998:** Mentxakak hartzen du txanda.
**1999:** Nestor Maidaganek hartuko du gidaritza aurten.

## JANTZIAK

Hauxe izan zuten arazo edo burukominik nagusia. "Begira, argi hitz eginez, gu ez goaz inora danborradetan agertzen diren gona motz-motz horietakoekin. Jende askok uste duenaren aurka, gure asmoa da danborradan parte hartzea eta ez barregarri geratzea.

"Azkenean, argazki zahar batek konpondu zigun arazoa. Hantxe zegoen nire amama, halako gona luze polit batekin, buruan zapi bat zeramala. Ez da danborradetan ikusten den horietako jantzia, noski, baina polita da; guk amonatxoren jantzia dela esaten dugu. Huraxe zela egokia erabaki genuen, ezinhobea guretzat. Hori bai, zapia txapelarekin ordezkatu genuen. Izan ere, zapia ez zitzaion ondo geratzen ezta Galesko printzesari ere!"

Eta halaxe, hainbeste emakumeren artean, ezin falta jostuna, eta Maribi Indak hartu zuen behar ziren laurogei gonak egiteko enkargua.

"Larri nabil, ez pentsa, oraindik gona piloa ditut egiteko, baina gustura nabil".

## SAIOAK

Berrogei lagun elkartu zirenean taldea osatutzat eman eta kalistroetara joaten hasi ziren, danborrak gozatzera. Esan digutenez, benetan gustura dabiltza.

ARRASATE
GARBIKETAK S. COOP.
San Juanetan girorik ederrena opa dizuegu
Uribarri, 20 ARRASATE
Tel. eta Faxa: 943 79 70 39

ARRASATE
AUTOZERBITZUA
Jaietan, ondo pasatu!
Uribarri, 20 ARRASATE
Tel.: 943 79 52 76

lurrindegia perfumeria
ZARRAOA
• Larruzko osagarriak
• Bitxiak
• Opariak
• Kosmetikoak
• Solarium-a
Kanpantorpea, 4 - behea
Tel.: 943 79 15 19
ARRASATE



Pepi Gorosabel, Zalduna. Arantza Heriz, Ikurrinduna. Idoia Fernandez, SUDCeko banderaduna. Elena Lasaga, Arrasateko banderaduna.

"Han ibiltzen gara, danborrak jo eta erritmoari jarraituz, dantza apur bat egiten. Eta badakizu? jendeak esaten digu sekulako giroa jartzen dugula. Dagoeneko usaintzen dira San Juanak".

## DANBORRADA IKUSGARRIA

Guztira, 250 bat pertsona aterako dira San Joan bezperan kalez-kale danborrak jotzen. Sei konpainiatan banatuta ikusiko ditugu: kupelajoleak, danborjoleak, eskoziarrak, sukaldariak, "Musean egiten duten Emakumeak" eta Beti Gazte taldea. Hauen inguruan, lau zaldi ere joango dira.

Horrezaz gain, Arrasateko danborradak bi kantu berri estreinatuko ditu aurten. Ohikoez gain, aurten *Batasuna* eta *Maritxu* kantuak danborraren martxan entzungo ditugu.

Bestetan moduan, oraingoan ere Juanito Arzamendi izan da beharrezko konponketak egin dituena.

Danborradan ikusten ditugun jantzi gehienak SUDCenak dira. Danborradan irten nahi duenak, eskatu egiten ditu eta kitto. Hori bai, badago gero ere urteetan etxean izaten dituena, bueltatzeke.

Kontuak kontu, hortxe ikusiko dugu, San Joan bezperan, danborrada dotore eta indartsu, Arrasateko kaleak danbor hotsez betetzen. ■

**Ubane Madera**

***Informazio iturriak eta argazkiak:***
*SUDC, Luis Maria Muruamendiaraz, Luis Okina "Maño" eta Maria Aranbarri.*

## BETI GAZTE

Berrogeta hamahiru pertsonak osatzen dute "Beti Gazte" kupelajoleen konpainia. 29 neska eta 24 mutil. Urtero-urtero irteteko gogoarekin ibilti omen da lagun-talde hau, baina gero, eguna heltzean, ausardia joan egiten zitzaien.

Baina Luis Okina "Maño" hogeita bat urtean danborradako danborjole nagusia izan dena lagun-taldekoa dute eta honek, taldeko bazkari bat aprobetxatuz, aurten joateko konbentzitu zituen. Jakin bazekiten "Musean egiten duten Emakumeak" ere ateratzekotan zirela, baina Beti Gaztek talde mistoa behar zuen izan eta azkenean gizonak lortu eta hantxe aterako dira San Juanetan, sekulako ilusioarekin. Are gehiego, talde honetan ere azkenean itxi egin behar izan dute atea eta bada irteteko gogoz gelditu denik ere.

Besteak bezala, konpainia honek ere jantzi berriak estreinatuko ditu. Irudimena piztu, Zeziagako jostunak lanean ipini eta elegante asko aterako dira datorren asteazkenean.



Jantzi hau estreinatuko dute Beti Gazte konpainiako emakumeek.

RUMBA TABERNA
JAI ZORIONTSUAK IZAN!!
Iturriotz kalea
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00

ARROGOI
TABERNA
San Juanak iritsi dira, zatoz gugana!
Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40

UGARTE
Industria hornidurak
Arrasate pasealekua
Tel.: 943 -79 83 96 / 943 - 79 23 00
Faxa: 943 - 793412



Izozkitegia
Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia
Iturriotz, 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarteko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

## RAFA FERNANDEZ (DANBORJOLE NAGUSI OHIA)

# “Danborrada ezohiko

**Rafa hemeretzi urterekin etorri zen Arrasatera. Harrezkero herriko hainbat ekitalditan hartu du parte, izan ere, horixe du gustukoen eta, herriaren alde lan egin. Baina danborradako danborjole nagusi izateaz gain, berriemaile ere izan da, El Correon eta Herri irratian, urte luzez.**



**— Urteetan zeu izan zara danborjole nagusia. Noiz hasi zinen?**

— 1959-60an antolatu zuen Udalpe elkarteak lehenengo danborrada. Orduan ni danborjole bezala hasi nintzen. Artean Jesus Mari Maidagan zen danborjole nagusia. Ondoren Jose Luis Mendieta etorri zen eta haren ostean, ni.

**— Nolakoa zen orduko danborrada?**

— Oso polita izaten zen. Alokatutako jantziak erabiltzen genituen eta soldadu frantsesen itxura genuen. Orduan 125 kilo nituen eta ez zegoen niretzako prakarik. Nire amaginarrebak konpondu egin zizkidan, baina hasi aurretik makurtu eta apurtu egin nituen. Eskerrak jaka luzea zela!

Oso danborrada polita zen. Guztiok ezagutzen genuen elkar eta giro oso atsegina zegoen. Inguruko herrietatik ere jende asko etortzen zen. Danborrada ezohiko zerbait zen. Ikusgarria erabat.

**— Zenbat jende zineten?**

— Berrogei bat kupelajole eta beste horrenbeste danborjole. Sukaladariak hogeita hamar bat ziren. Izugarria zen guztion parte hartze nahia. Damak eta erregina ere baziren. Orduko danborradak karroza eta guzti egiten ziren.

**— Noiz hasi zinen danborjole nagusi?**

— 1978an laga nion zuzendari izateari, baina 1979an danborjole bezala atera nintzen. Zenbait lagunek segitzeko gogoa genuen, baina... Gazteak hasi zirenean, hasieran behintzat ondo zihoan, baina haiek ere nekatu egin omen dira.

**— Iaz ia ez zen danborradarik egin.**

— Penagarria da. Salbea, afaria eta danborrada ezohiko ekitaldiak ziren jaietan. Sekulako giroa egoten zen. Ohitura horiek galtzea tamalgarria litzateke.

**— Zergatik uste duzu gertatu dela gainbehera hori?**

— Errua gurea izan liteke, oso bizkor lagatzeagatik. Horrez gain, gazteen ohiturak asko aldatu dira.

**— Aurten bi konpainia berri aterako dira.**

— Ni beti izan naiz danborradan segitzearen aldeko.

**“Beti izan naiz danborradan segitzearen aldeko. Askotan esan dut beteranoek berriz ere atera behar genuela”**

J. RAMÓN OTAMENDI
HARATEGIA
Berezitasunak:
Hemengo okela, buzkantzak eta txorizoa
Ferrerias, 20 • ARRASATE • Tel.: 943 79 62 28

DAGLAS bideo-kluba
6.000 film baino gehiago
Filmik berrienak
Informatikan berrikuntza guztiak preziorik onenean
BEPP banatzaile ofiziala
Otalora Lizentziatua, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 78 19

# ekitaldia zen jaietan”

Askotan esan dut beteranoak berriz ere atera beharko ginatekeela. Konpainia bat egin behar zela esan zidatenean, ez nuen birritan pentsatu. Gainera, zuzendaria izango naiz. Bigarrena emakumeen konpainia izango da. Jakin dudanez, emozionaturik daude.

**— Arrasateko berriemailea izan zara urtetan. Noiz izan zen?**

— Hogeita hamar bat urtez *El Correo*ko herri kronikak egin izan ditut. Orain sei urte erretiratu nintzen arte aritu nintzen lan horretan.

**— Nolatan hasi zinen berriemaile lanetan?**

— Bost urte nituela, Zigorrolan bizi izan nintzen bi hilabetez. Gero Bilbora joan ginen. 1957an Arrasatera ezkondu nintzen. 1960an hasi nintzen kronikak idazten. Nire aita linotipista zen eta haren bitartez hasi nintzen.

**— Zer gogoratzen duzu artikulu haietatik?**

— Oso gauza gutxi. Nire uztako ezer gutxi idatzi nuen, gehiena jendeak kontatzen zidana izaten zen. Behin Ferrerias kaletik gora nindoala, hiruzpalau hilabetez han egondako zulo bati buruz idaztea erabaki nuen. Artikulua argitaratu zutenerako, zuloa estalia zegoen. Futbola ere izan nuen hizpide askotan.

**— Nolakoa zen orduko Arrasate?**

— 1957an 14.000 bat biztanle zituen eta urte gutxiren buruan bikoiztu ere egin zen. Herri txikiagoa izanik, giroa herrikoiagoa zen. Hobeto ezagutzen genuen elkar.

**— Zer idazten zenuen San Juanetako kroniketan?**

— Ez nuen atsegin idaztea nik parte hartzen nuen ekintaldiei buruz. Horregatik, beste norbaiti eskatzen nion. San Juanetan salbea bezperan, sua eta himnoa, danborrada, hurrengo eguneko meza nagusia eta Garellanoko banda militarraren emanaldia, barrakak, dantzaldia plazan, tenis txapelketa Cerrajerako jokalekuan eta igeriketa txapelketak izaten ziren. Hirugarren eguna izaten zen ederrena. Bikoteak ateratzen ziren kalera eta inoiz ez zenekien non bazkaldu behar zenuen. Elkarri bazkaltzeko gonbitea egiten genion.



AMAGARA
jai zoriontsuak
Emakumearen benetako edertasuna barneko eta kanpokoaren arteko armonian dago
Era guztietako tratamenduak aurpegirako eta gorputzerako
Deitu eta konpromisorik gabe hartuko zaitugu
Erdiko kale, 54 etxabea • Tel.: 943 79 09 09 • ARRASATE



## ERDI ARRASATEAR

Errealekoa eta donostiarra izango da, baina De Pedro Arrasatera etorri zen bere Volvo berde berria erostera. Lagun onak eta giro jatorra omen dago herri honetan eta… Argazkian, Kristina Aldibiko ordezkaria giltzak ematen.



## BIKOTE POLITA

Itziar Uriarte arrasatearrak eta Unai Juaristi legazpiarrak unibertsitatean ezagutu zuten elkar eta maiatzaren 22an Arrasateko udaletxean ezkondu ziren. Marisanean bazkaldu zuten senide eta lagunekin. Kanadan izan dira ezkon-bidaian. Zorionak, bikote, lagunen partetik eta zorte on elkarbizitzan!




## MUNDUAN IBILTARI

Micro's informatika Hannoverreko Cebit azokan izan zen aste betez martxoan. Han, datozen urteetarako berritasunak ikusi, eurenak erakutsi eta munduan nola ibiltzen den ikasi zuten. Argazkian, Mikel Bartolozzi harro-harro zuzen eta garaiz heldu zirelako.

Jai Zoriontsuak!

HEMEN
gozotegia
Brasileña kafeak
Kruasandegia
Sebero Altube, 8 • Tel.: 943 79 94 99 • ARRASATE

C&C LLONGUERAS
Ileapaingintza eta estetika ikastaroak
Euskal Herriko LLONGUERAS irakaskuntza zentru bakarra
Matrikula zabalik
Olagibel, 61 • Tel.: 945 12 03 60 • GASTEIZ

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

LANDALUZE
HARATEGIA-URDAITEGIA
ITURRIOTZ KALEA, 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE




Eugenia Azurmendik eta Eugenio Apaolazak urrezko ezteiak ospatu zituzten maiatzaren 23an. Orain dela berrogeita hamar urte ezkondu ziren Landan, bere herrian. Ospakizuna Uribarriko elizan egindako mezarekin hasi zen eta Mendiolan jarraitu zuen, giro alai eta umoretsuan, bazkari eder batekin. Berrogeita hamar lagun elkartu ziren hantxe, besteak beste, beraien alaba, hiru bilobak, anai-arrebak eta gainontzeko ahaide eta lagunak.

## ZORIONAK!

Neskatila panpoxa hau Alaia Viguri da. Atzo 12 urte bete zituen. Hori dela eta, argazki honen bitartez bere familiak zoriondu egin nahi du eta baita zenbat maite duten esan ere. Zorionak, bada!!!



SAN JUANAK
ONDO PASATZEKO...




Iturriotz, 12 • ARRASATE

ASESORIA
ARRASATE

• Juridikoa
• Fiskala
• Laborala
• Zurich aseguruak
• BANKINTER

*Erdiko kalea, 32 - 1. I*
*ARRASATE*
*Tel.: 943 - 79 01 47 • Faxa: 943 - 79 73 00*



## ELKARTASUN ADIERAZPENA

Gazteluondo ikastolako bosgarren mailako ikasleak 20.000 pezeta eman zioten Carmela Taravillori maiatzaren 27an. Carmela, Boliviako Cochabamban dabil, hango behartsuei irakasten. Lan horretan laguntzeko, bi hilabetez aritu ziren neska-mutikoak dirua itxulapikoetan batzen.





## ZILARREZKO EZTEIAK

Joseba Andoni Altzelai eta Konsuelo Zugasti orain hiru bat aste New York-etik, eta Kanadatik itzuli dira. Izan ere, ekainaren 8an bere ezkontzaren 25. urteurrena bete zen eta itsasoz bestaldera joan ziren ospatzera eta baita handik goapo-goapo itzuli ere. Senideek zorionak opa dizkizuete!

## KARIBEKO ERRITMOAK ATZERATUENTZAT



Ekainaren 6ko eguerdian SUDCeko eta udaleko 25 pertsona beste hainbeste atzeraturekin elkartu ziren. Herrian buelta bat eman eta gero, bazkaldu egin zuten. Arratsaldean, berriz, 17:00etatik 20:00ak arte saltsa eta merenge ikastaroan ibilitakoak dantzatzen aritu ziren Natalio Maiztegi maisuak lagundu-ta. Primeran, aizue!

Marivi
LORADENDA
Alfonso X jakintsua 5
(Grupo San Juanen) • ARRASATE
Tel.. 943 79 15 59 / 943 78 81 54
Koroak, ezkontzarako edo momentu berezietarako lore sortak.

BITTORI
ERRETEGIA
*Eguneko menua • Kartako menua*
*Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak*
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82


IKASTARO TRINKOAK
ETA ERREKUPERAZIO-IKASTAROAK
UDA HONETARAKO
MULTIMEDIA-SISTEMA
• 09:00etatik 21:00etara, etengabeko ordutegia
• Mintzapraktika
• Ikasteko ordu mugarik gabe
• 18 urtetik gorakoentzat
ingelesa, frantsesa eta alemana
2 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK TALDEKA
• Goiz eta arratsaldeko ordutegia
• Haurrak, gazteak eta helduak
CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS
bai&by
Arrasate Araba Hiribidea, 4 • Tel.: 943 712055
Oñati Olakua, 14 • Tel.: 943 716000
Gasteiz Florida, 8A • Tel.: 945 150155


Oihana
Loradenda - Apainketa
18 VA 24
VISTA ALEGRE
PORTUGAL
Arrasate pasealekua, 8 • ARRASATE • Tel.: 943 77 14 56


proba itzazu!
Erabili eta botatzeko
lentilla
hilabetekoak
Dohaineko proba!
Promozioa 1999ko uztailaren 15 arte
egunerokoak
Erabili eta botatzeko
lentilla
2.400 pta
Eta gainera,
90 egunerako
lentillak erosita,
poltsa hau zuretzat
BAUSCH
& LOMB
Eta 3 hilabeteko
"pack"-a erosita
toaila hau zuretzat
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
Ibargarai, 16 - BERGARA - Tel. 943 76 15 75
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE - Tel. 943 79 29 95
J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA - Tel. 943 88 99 88


ERABAT BERRIZTURIK, ZERBITZU EZIN HOBEA
CITROËN
Talleres chapime
Chapime Tailerrak
Araba etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 06 57 • ARRASATE

## FUTBOLA
### Amaitu da denboraldia

Astebete lehenago amaitu zuen denboraldia, baina joan den larunbatean lagun arteko partida bat jokatu zuen Mondra elkarteko haur mailako taldeak Realaren kontra, Atxabalpen. Mondrak jarri zuen baloia jokoan eta berak lortu zuen lehenengoz markagailua estreinatzea. Baina Errealak berehala lortu zuen berdinketa eta 1 eta 2koa ere bai.

Bigarren zatian hirugarrena lortu zuten kanpotarrek eta nahiz eta David Espinosak tartea txikitzea lortu, azkenean 2 eta 3 amaitu zen partida, Errealekoen alde.

## IGERIKETA
### Arrasatearrak bikain

Ane Lopez de Bergara eta Eneritz Jauregi Euskal Herriko Hegats Txapelketan izan ziren asteburuan, Ordizian. Biak ere Ordiziako taldearekin ari dira, beraz ia etxean aritu zirela esan dezakegu. Hainbat modalitatetan aritu ziren. Ane iaz lortutako emaitza onak errepikatu nahian aritu zen, baina ura hotza zegoen. "16-18 gradutan zegoen eta hankak erabat hoztuta gelditu zitzaizkigun guztioi". Dena dela, garaipena eskuratu zuen 1.500 eta 400 m.etan. Denborak ez ziren izan bere gustukoak, uraren tenperatura zela eta. Eneritzek, bestalde bigarren izan zen 100 m. eskafandra eta ur gaineko 50 m.etan.

Uztailaren 3ko eta 4ko asteburuan, biak Espainiako txapelketan hartuko dute parte, Ourensen.

## TXIRRINDULARITZA
### Oraindik saiatzen

JMAko lehen urteko haurrak Oñatin aritu ziren joan den asteburuan, XII Olakua sarian. Lasterketa ia osoa tropelean egin zen eta garaipena, esprintera, Autolabaka taldeko Aritz Arrospidek lortu zuen. JMAtik Elustondo, Juldain, Elortza eta Martin aritu ziren. Tropelean sartu ziren, erdialdeko tokietan. Larunbatean Bergarako San Antonio auzoko jaiak direla eta, San Antonio saria jokatuko dute. JMA taldeko bigarren urteko haur mailakoekin batera.

Fagor taldeko gazteak Legorretan aritu ziren Gipuzkoako errepide txapelketan. Oso lasterketa gogorra izan zen eta hasieratik hiru taldetxo egin ziren. Lehenengoan Txema Galan sartu zen. Bigarrenean Gorka Almaraz, Josu Beitia eta Imanol Solis. Gipuzkoako txapelduna Joseba Agirrezabala izan zen, Oriako Txirrindulari elkarteko txirrindularia. Larunbatean Zegaman, Elkartu Nahi saria jokatuko dute.

# Bi arrasatear lehen hamarren artean



Jabier Miguelek saria jaso zuen San Juan lasterketan

San Juanetako txirrindulari lasterketa jokatu zen larunbatean Arrasaten, afizionatu mailan. Arrasate Txirrindulari Elkarteak antolatuta, 100 bat afizionatu elkartu ziren Garibaiko irteeran. Gipuzkoako txapelketa zen eta garaipena Gorka Gonzalez, Iberdrola taldeko txirrindulariak lortu zuen 23 urteko azpikoen artean, elite mailako Imanol Atestaran izan zen eta hirugarren, berriz, Aranegi.

Born Jay taldeko bi txirrindulari helmugaratu ziren lehenengo hamarren artean. Bosgarren tokian Jabier Miguel. Bere onera itzultzen ari da mina izan eta gero. Jon del Rio seigarren izan zen.

**INFANTILAK**

Normaltasun osoz jokatu zen larunbatean Zigorrolako Industrialdean Infantil mailako txirrindulari lasterketa. Hiru mailatan banatuta zegoen. Alebinetan Jon Etxeberria azkoitiarra izan zen garaile. Eskola mailari dagokionez, irabazlea Jon Garate azkoitiarra izan zen. Federatuen kasuan, azkarrena Igor Romero mutrikuarra, bigarren Andoni Urteaga oñatiarra eta hirugarren Arrasate Kirolak taldeko Markel Lasaga.

## Parte hartze txikia



Ikusmin handia sortu zuen larunbatean jokatu zen Motor Txikien II. Txapelketak. Zortzi motorzale aritu ziren.

Gazte mailan Efren Vazquez izan zen garaile. Alebinetan, Iñigo Huguet. 72 kilotik gorakoetan, Luis Barbero. 72 kilotik beherakoetan, Benedicto Santiago.




Txotx egin!
Astelehenetik asteazkenera enkarguz
Ostegunetik igandera zabalik
*Arraga auzoa*
*Tel.: 945 44 53 85*
*ARAMAIO*

eusko alkartasuna

EAJ PNV





# Eskerrik asko
# Guri botoa eman
# diguzulako

# Hogeigarren pilota txapelketa

Larunbatean jokatuko da San Juanetako eskuz binakako pilota txapelketa. Alebin, infantil eta gazte mailako bikoteak arituko dira Iturripeko kiroldegian, goizeko 11:00etatik aurrera.

Benjaminetan Gasteizko Santa Lutzia txapelketako irabazleek, Fernandezek eta Bolinagak, Elortza eta Arregi izango dituzte aurrez aurre. Alebinetan Gorka-Otxoa bikoteak Agirre-Lakuntzaren aurka jokatuko du txapela. Infantiletan, berriz, Abarrategi-Agirre, Axpe-Jimenezen aurka neurtu beharko dira.


Uribarrenek-Urkiak 22 eta 12 gailendu zituzten Zuazua eta Jimenez.

**JOAN DEN ASTEBURUAN**

Fernandezek eta Bolinagak Santa Lutzia txapelketa irabazi zuten joan den asteburuan Gasteizen. 18 eta 9 gailendu zituzten pilotari gasteiztarrak, aurrebenjaminetan.

Uribarrenek eta Jimenezek, bestalde, 16-18 galdu zuten Txurruka eta Resanoren aurka, 14-11 irabazten joan eta gero. Zuazua eta Agirre bestalde, Gipuzkoako eskolarteko txapeldun izan dira.

Arrasatearrak, bestalde, Gipuzkoako herri arteko eskuz binakako txapelketatik kanpo gelditu dira. Haur mailan Zuazuak eta Jimenezek, 18 eta 12 galdu zuten Igartua eta Jonas atxabaldarren aurka. Gazte mailan, Uribarrenek eta Dominguezek, 17-22 galdu egin zuten Uriarte eta Alzolaren aurka. Seniorretan, Lazkano-Belategi, 9-22 gelditu ziren Errasti anaien aurka jokatutako norgehiagokan.

Berrizko txapelketan, ordea, emaitza hobeak lortu zituzten arrasatearrek. Fernandezek 18-13 gailendu zuen Usansoro galdakaoarra. Elortzak 18-9 irabazi zuen eta Bolinagak, berriz, 18-7.

# Emakumeak musean

Aurtengoa emakumeen artean jokatzen den hirugarren txapelketa izango da. Arrasatekoekin batera, Oñati, Mendaro eta Bergarako bikoteak arituko dira, besteak beste, herri arteko txapelketan. Iaz Yolanda eta Rosi Azpiazuk lortu zuten txapela, biak ere Roman Lopezen ikasleak. Ea bada, aurten ere sasoi berean dauden eta tituluari eustea lortzen duten.

Partidak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira, Mondragon hotelean.

# Usakume tiraketa

San Juanetako II Usakume tiraketa jokatuko da larunbat goizean, San Kristobal hilerriaren ondoan.

Leintze elkarteak antolatutako txapelketa hau aurtengo bigarrena izango da. Izan ere, orain dela bi hilabete jokatu zen-eta lehenengoa, baina orduan eguraldiak ez zuen bat ere lagundu eta ez zen oso txapelketa ikusgarria izan. Goizeko 11:00etan hasiko da.


Diego Valor
Ile apaindegia

San Lorenzo, 2, behea
(Gizonezkoak)
Tel: 943 76 58 08

Zubieta, 38, behea
(Binakoa eta estetika zerbitzua)
Tel: 943 76 37 70

BERGARA





King´s
Ile apaindegia

Zeureganatu estilo berria!

Zarugalde, 23, behea
Tel: 943 79 84 88

ARRASATE

Denda berria!

T textil agirrezabal A

Etxerako era guztietako ohial eta ehunak, kortinak...

alfonbren txokoa

Amillaga industrialdea, 5
Tel./Fax: 943 76 72 52
BERGARA

ITVaren kalean, Renaulten ondoan

eusko alkartasuna



EAJ PNV



# Eskerrik asko Guri botoa eman diguzulako

# Hogeigarren pilota txapelketa

Larunbatean jokatuko da San Juanetako eskuz binakako pilota txapelketa. Alebin, infantil eta gazte mailako bikoteak arituko dira Iturripeko kiroldegian, goizeko 11:00etatik aurrera.

Benjaminetan Gasteizko Santa Lutzia txapelketako irabazleek, Fernandezek eta Bolinagak, Elortza eta Arregi izango dituzte aurrez aurre. Alebinetan Gorka-Otxoa bikoteak Agirre-Lakuntzaren aurka jokatuko du txapela. Infantiletan, berriz, Abarrategi-Agirre, Axpe-Jimenezen aurka neurtu beharko dira.



**Uribarrenek-Urkiak 22 eta 12 gailendu zituzten Zuazua eta Jimenez.**

### JOAN DEN ASTEBURUAN

Fernandezek eta Bolinagak Santa Lutzia txapelketa irabazi zuten joan den asteburuan Gasteizen. 18 eta 9 gailendu zituzten pilotari gasteiztarrak, aurrebenjaminetan.

Uribarrenek eta Jimenezek, bestalde, 16-18 galdu zuten Txurruka eta Resanoren aurka, 14-11 irabazten joan eta gero. Zuazua eta Agirre bestalde, Gipuzkoako eskolarteko txapeldun izan dira.

Arrasatearrak, bestalde, Gipuzkoako herri arteko eskuz binakako txapelketatik kanpo gelditu dira. Haur mailan Zuazuak eta Jimenezek, 18 eta 12 galdu zuten Igartua eta Jonas atxabaldarren aurka. Gazte mailan, Uribarrenek eta Dominguezek, 17-22 galdu egin zuten Uriarte eta Alzolaren aurka. Seniorretan, Lazkano-Belategi, 9-22 gelditu ziren Errasti anaien aurka jokatutako norgehiagokan.

Berrizko txapelketan, ordea, emaitza hobeak lortu zituzten arrasatearrek. Fernandezek 18-13 gailendu zuen Usansoro galdakaoarra. Elortzak 18-9 irabazi zuen eta Bolinagak, berriz, 18-7.

# Emakumeak musean

Aurtengoa emakumeen artean jokatzen den hirugarren txapelketa izango da. Arrasatekoekin batera, Oñati, Mendaro eta Bergarako bikoteak arituko dira, besteak beste, herri arteko txapelketan. Iaz Yolanda eta Rosi Azpiazuk lortu zuten txapela, biak ere Roman Lopezen ikasleak. Ea bada, aurten ere sasoi berean dauden eta tituluari eustea lortzen duten.

Partidak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira, Mondragon hotelean.

# Usakume tiraketa

San Juanetako II Usakume tiraketa jokatuko da larunbat goizean, San Kristobal hilerriaren ondoan.

Leintze elkarteak antolatutako txapelketa hau aurtengo bigarrena izango da. Izan ere, orain dela bi hilabete jokatu zen-eta lehenengoa, baina orduan eguraldiak ez zuen bat ere lagundu eta ez zen oso txapelketa ikusgarria izan. Goizeko 11:00etan hasiko da.


Diego Valor
Ile apaindegia

San Lorenzo, 2, behea
(Gizonezkoak)
Tel: 943 76 58 08

Zubieta, 38, behea
(Binakoa eta estetika zerbitzua)
Tel: 943 76 37 70

BERGARA





King´s
Ile apaindegia

Zeureganatu estilo berria!

Zarugalde, 23, behea
Tel: 943 79 84 88

ARRASATE

Denda berria!

T
textil
agirrezabal
A

Etxerako era guztietako ohial eta ehunak, kortinak...

alfonbren txokoa

Amillaga industrialdea, 5
Tel./Fax: 943 76 72 52
BERGARA

ITVaren kalean, Renaulten ondoan

# Goitibeherak Udalatik behera

Igandean, ekainak 20, Goitibeheren Txapelketa jokatuko da. Aurtengoa AED elkarteak antolatzen duen laugarren jaitsiera izango da. Eguraldiak laguntzen badu, jende dexente elkartuko da Kontzezinoko komentuaren bihurgunean. Izan ere, horixe da lekurik ikusgarriena goitibeherak zelan datozen ikusteko. Iaz hogeita hiru goitibehera aritu ziren eta garaipena Haritz Billotak eta Asier Auedok eskuratu zuten.

Aurten hitzordua goizeko 11:00etan izango da, Udala auzoan. Igandekoa Euskal Herriko goitibeheren ligako jaitsiera da. Txapelketa apirilaren 5ean hasi zen eta Arrasatekoa bosgarren txanpa izango da. Gotibeherek zenbait baldintza bete beharko dituzte neurriei-eta dagokienez.



**Goizeko 11:00etan hasiko da Udalako jaitsiera.**

# Partida azkarren xake txapelketa

San Andres Xake Taldeak antolaturik, larunbatean partida lasterren Xake txapelketa jokatuko da Sebero Altube plazan. Herri arteko txapelketa izango da, Scheveningen sisteman jokatuko dena. Hau da, taldeak launa jokalariz osatuko dira eta jokalari bakoitza beste hiru taldeetako jokalarien aurka aritu beharko da. Puntu gehien lortzen duena, irabazle.



Scheveningen sistema emozioa emateagatik aukeratu dute eta hirugarren aldia izango du aurten. Arrasatekoa Euskal Herrian jokatzen den sistema honetako txapelketa bakarra da.

Parte hartzaileen artean, San Andres Xake taldeaz gain, Aretxabaleta, Ermua eta Durangoko taldeak izango dira.

Txema Hernando, Josu Tornay, Anjel Luis Ortega eta Isidro Ruiz laukoak osatuko du Arrasateko taldea. Ez dute lan makala izango. Izan ere, Durangoko La Resolueta taldea Bizkaiko Kopako txapeldunak da bai eta partida azkarren Euskal Herriko txapelduna ere. Ermuko laukotea, berriz, hirugarren sailkatu zen Bizkaiko kopan. Aretxabaletako taldea, bestalde, Gipuzkoako txapeldunek osatuko dute. Txapelketa arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta bitartean xake taula erraldoi batean partida azkarrak ere jokatuko dira Jon Perez eta Roberto Villarren artean.

Bestalde, haur eta zale guztiek taldeko jokalarien aurka jokatzeko aukera izango dute, partida azkarretara.




ALDAPE
Taberna
Espezialitatea:
menua - karta
Iturriotz, 41
Tel.: 943 79 70 41
ARRASATE

BIRIBIL
Edari eta tabakoetan espezialistak
Zarugalde, 35 • Tel.: 943 - 79 09 53 • ARRASATE

Txuri-Beltz
Iturriotz, 33
ARRASATE - MONDRAGON

IMPRESION
J G
INPRESIO DIGITALA
DIGITAL
Offset inprimatze digitala.
Kolore lauak, inprimatze zuzena disketetik paperera
Arrasate pasealekua, 2
Tel.: 943 77 06 11
Faxa: 943 77 09 86
ARRASATE



Umeen arroparik aproposena

Aprobetxatu orain %20ko beherapena

Gure partetik, San Juan zoriontsuak!

Elisabeth

ARRASATE KIROLAK

ASTORE TERNUA





# S. Carrascal S.L.

**Hemen bertan egindako**

- **Sukalde altzariak**
- **Horma armairuak**
- **Bestelako armairuak**
- **Etabar**

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu.*

**Fabrikan erakusketa: Gipuzkoa Etorbidea, 6-1 A. Tel./Faxa: 943 79 01 82**



# Heldu da eguna

Azkenean iritsi da denok espero genuen eguna. Larunbatean, hamar hilabetean zehar jokatzen aritu diren bi talderik onenek Zaldibarko finala jokatuko dute. Arrasatearrentzat ala atxabaldarrentzat izango da txapela?

## *Laburrak*

**ALDIBI 4-NARANJA 3**

Iazko txapeldunak bere titulua defendatuko du Zaldibarko futbito txapelketako finalean. Gol bateko aldearekin lortu zuen Naranja Mecanica taldea gailentzea.

Aldibi aurreratu zen lehenengo zatian. Lehen zatiaren amaieran, 3 eta 0eko emaitzarekin amaitu zuen, Iker Balzategi eta Iker Kortek lortutako golei esker.

Bigarren zatiaren hasieran Naranjak lehenengo gola lortzeko aukera izan zuen penalti batekin, baina Aldibiko atezaina esna zegoen eta gelditu egin zuen.

Horren ostean, badirudi Naranjakoak esnatu zirela eta hiru gol segidan lortu zituzten: Arrotxak, Gutik eta Markelek lortutakoak, hain zuzen ere.

Azkenean 4 eta 3. Aldibi finalean.

**ORLANDO 9-LONTXO 1**

Orlando izango da beste finalista larunbatean Zaldibarren. Lontxo Tabernari erraz irabazio zion joan den asteko final laurdenetan. 9 eta 1eko emaitzarekin amaitu zen norgehiagoka. Izan ere, Orlando hasi zen irabazten eta handik aurrera golak sartu baino ez zuten egin taldekideek. Lehenengo gola Aritzek egindako penalti baten ondorioz etorri zen eta atxabaldarren aurreratzea lortu zuten markagailuan. Alberto Garrok lortuako gol horren ostean, Aitor Gartziarena etorri zen. Hirugarren gola ere Garrok lortu zuen korner baten ostean eta Juanillok laugarrena sartzea lortu zuen Ibonekin egindako jokaldi batean. Honek bosgarrena lortu zuen eta Jokin Idigorasek seigarrena. Hortxe iritsi zen lehenengo zatiaren amaiera.

Bigarren zatian gol zaparradak segitu zuen. Garrok zazpigarrena, Zufiriak zortzigarrena eta Etxabek bederatzigarrena.

Azkenean 9 eta 1. Orlando finalera.



**FINAL EGUNA**

Ekainaren 19an, larunbatean, jokatuko dira Zaldibarko aurtengo azken bi norgehiagokak. Lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren tokiak jokatuko dituzte, Naranja Mecanicak eta Lontxo Tabernak (16:00etan) eta Orlando Piratasek eta Aldibik(17:00etan).

Baina jaia ez da hortxe amaituko. Izan ere, sari banaketaren ostean, bi finalistek afaria izango dute, ohi bezala Saran.

Egun honek ematen duenaren berri, luze eta zabal, ATBn emango da Mondrasport saioan. Hantxe Itxaro Zubillagarekin irabazleak eta txapelketako antolatzaileak, Bonba Taldieko kideak izango dira, balantzea egiten.



Jendez gainezka egongo dira Zaldibarko harmailak larunbatean.

## Finalak

**Ekainak 19, larunbata**
**Zaldibar**

**3. eta 4. tokiak**
16:00 Naranja - Lontxo
**Finala**
17:00 Orlando - Aldibi

## Emaitzak

Lontxo 1 - Orlando Piratas 9
Aldibi 4 - Naranja Mecanica 3

ARRASATE KIROLAK
Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

## IV Nesken Futbito Txapelketa

Finala geroz eta gertuago dago. Azterketak direla eta, hainbat partida atzeratu dira. Hauetxek jokatu bezain laster, ekainaren 26an, finala jokatuko da. Ostean sariak, eta amaitzeko, luntxa egingo da.

Sailkapenari dagokionez, Txanpi 2 taldea oso indartsu dago. Baina Txanpi 1tek gertutik jarraitzen dio. Eurak dira finala jokatzeko aukera gehien duten taldeak. Baina nork daki! Oraindik ez da ziurra, azkenengo norgehiagoka jokatzear dago eta.

**8. jardunaldia**

**San Viator Txikin**

Gora Gu 1 - Porrusalda Forever 7

**Ferixalekuan**

Txanpi 13 - Izen Bakuak 1

**Atzeratuak**

Ieup! - Skarlets
Txanpi 2 - Pilpil Efektua
Nuze - @z.kom

**Ekainak 19, larunbata**

**San Viator Txikin**

16:00 Skarlets-Porrusalda Foreve
17:00 Ieup! - Nuze
18:00 Gora Gu - Pilpil Efektue

**Ferixalekuan**

16:00 Txanpi 1 - @z.kom
17:00 Txanpi 2 - Izen Bakuak

**Sailkapena**

| | |
|---|---|
| 1 - Txanpi 2 | 14 |
| 2 - Txanpi 1 | 14 |
| 3 - Izen Bakuak | 10 |
| 4 - Porrusalda Forever | 9 |
| 5 - Pilpil Efektua | 8 |
| 6 - Ieup!! | 7 |
| 7 - Skarlets | 5 |
| 8 - Gora Gu | 4 |
| 9 - Nuze | 1 |
| 10 - @z.kom | 0 |

FELI
Janaridenda
JAI ZORIONTSUAK IZAN!!
Okendo, 3 ARRASATE
Tel.: 943 79 48 85

KIMETZ
Kazuelatxoak, ogitartekoak eta pintxoak
Mala, 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE

OPIL OKINDEGIA
DONIBANE
GOZOTEGIA
Inazio Zuloaga, 2 • Tel.: 943 79 80 50 • ARRASATE

Alai
Gozokidenda Aldizkariak
Otalora Lizentziatua, 2
Tel.: 943 79 69 34


Lore
Zure gorputza zainduz
Olarte, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50
CLARINS
Gommage Exfoliant
Exfoliating Body Scrub
Lift Minceur 2000
Body Lift 2000
Crème Masvelt
Body Shaping Cream
Lait Jambes Lourdes
Energizing Emulsion
Bain aux Plantes "Relax"
Relaxing Shower-Bath Concentrate
Lift-Fermeté
Body Firming Cream
Contouring Shower-Bath Concentré
Gozatu eguzkiaz
aurretik
ondoren
Crème Solaire Bronzage Sécurité


Kalitateak, mugarik ez.
ARGI-PLASTIC
Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE


ZIRT-ZART & ZIRT-ZART & ZIRT-ZART &
ZZ
Jai zoriontsuak
Txandarik hartu gabe etor zaitezke
astelehenetan 14:00 - 17:00
astearte edo asteazkenetan 10:00 - 17:00
Eguerdietan ere zabalik
Gorbea kalea • Tel.: 943 77 09 44
ARETXABALETA

XELI MENDIZABAL (AIRE ZABALEKO PINTURA LEHIAKETAN SARITUA)

# "Batez ere koloreekin jolastea dut gustuko"

**68 urteko arrasatear hau izan da Familia eta Gizarte Heziketarako Zentroak antolatutako aire zabaleko 18. pintura lehiaketan, herrikoen artean lehen saria lortu duena. Balentin Arana izan da herriko bigarren saritua. Gazteetan, berriz, Eluska Zabalo arrasatearra gelditu da lehenengo, eta herrikoetan lehen saria Oxel Zabalok eskuratu du.**



**— Marrazteko zaletasuna noiztik duzu?**

— Aspalditik, baina sekula ez dut margolaritzari nahi beste denbora eskaintzeko aukerarik izan. Baina, margolaritzaz gain, plastika edo eskulanen arloa atsegin dut, oro har.

**— Zure kontu ikasi duzu marrazten?**

— Bai. Erretiratu baino urtebete lehenago izan nuen lehenengo irakaslea, Bergarako Abdon Juaristi. Orain Luis Laskurainekin ari naiz. Astean behin etortzen da Bergaratik Arrasate Margo taldera. Hamabi edo hamahiru pertsona aritzen gara, bostetatik zortziak arte.

**— Horrelako lehiaketa askotan hartu duzu parte?**

— Nahiko ausarta naiz lehiaketetarako. Jaietako hormirudi lehiaketetan ere hartzen dut parte, eta San Juanetako egitarauarenean orain dela bi urte eta iaz lortu ditut sariak.

**— Zer marraztu duzu aire zabaleko lehiaketan?**

— Solozahar baserria eta atzeko harrobia. Harrobiak kolore asko ditu, eta erakargarria zen. Baserria, berriz, oso zaharra da, baina oso polita aldi berean. Horretaz gain, kalean baino lasaiago marrazten da horrelako leku baketsu batean, jendearengandik aparte. Beste auzo batzuk ere badaude, baina Udala, adibidez, askotan errepikatu izan da. Gainera, helburua ez zen saria lortzea, igande goizean marraztuz ongi pasatzea baizik.

**— Zein estilo erabili zenuen margolana egiteko?**

— Akrilikoa. Olioa ere lantzen dut, baina akuarela ez. Marrazkia lehenengo errotulagailuz egin eta gainetik argizaria pasatuz ere oso efektu polita lortzen da, batez ere loreak. Loreak marraztea oso atsegin dut, eta baita parajeak ere. Pertsonak agertzen badira, gainera, hobeto. Erretratuak ere gustatzen zaizkit, baina ez oso errealistak, isla oso sueltoa eta atmosfera dutenak baizik.

**— Zein estilo duzu?**

— Batez ere koloreekin jolastea dut gustuko. Margolan batean konposizioa eta kolorea dira funtsezko bi gauzak, niretzat.

**— Zein da Arrasateko margolariok zuen zaletasun hori aurrera eramateko duzuen zailtasunik handiena?**

— Eskolak emateko jenderik ez egotea. Galartak eta, dagoeneko ez dute eskolarik ematen, eta horregatik Bergarakoak etortzen dira. Margolari gazteak ere badira Arrasaten, baina…

**— Zein da zure margolaririk gustukoena?**

— Inpresionistak izugarri gustatzen zaizkit. Batez ere Van Gogh, Kandisky, Cezanne… Iperrealismoa gutxiago gustatzen zait.

## "Sekula ez dut margolaritzari nahi beste denbora eskaintzeko aukerarik izan"

Mari Jose
Gora San Joanak!
OINETAKOAK
Erdiko kale, 20 • ARRASATE
Tel.: 943 - 79 22 98



Elizondo
kafetegia
ELIZONDO
Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

# Sanjuanak, kultura ekitaldiz blai!

Aurtengo sanjuanetan hainbat kultura ekitaldi izango dira herritarren eskura. Musikazaleek, Arrasate Musikaleko instrumentu taldeen kontzertua izango dute aukeran, ekainaren 18an. Amaia antzokian izango da kontzertua, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Horretaz gain, gauero musika taldeak izango dira herriko plazan.

Ekainaren 20an, esate baterako, Txinparta taldearen doinuekin dantzatzeko aukera izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita. San Joan bezpera egunean, berriz, Gaubela taldeak joko du dantzaldian, goizaldeko ordu batetik aurrera, Herriko plazan. San Joan egunean Egan taldeak joko du, 23:30ean hasita; hurrengo egunean, berriz, bi talde izango dira aukeran: Los Perez de Nochistlan mariatxi taldea Monterron parkean eta Almen Herriko plazan. Biek ala biek gaueko 23:00etan hasiko dute beren emanaldia. Sanjuanei amaiera emateko betebeharra Luhartz taldeak du, eta talde honek ere aurreko eguneko taldeen ordu berean ekin beharko dio lanari.



Arrasateko dultzaineroak kaleak girotzen.

**MUSIKA KLASIKOA**

Arrasate Musikaleko musika bandak emanaldia izango du Monterron parkean, San Joan egunean, Eduardo Arzamendiren zuzendaritzapean. Eguerdiko ordu batean izango da kontzertua, eta guztira zortzi kanta eskainiko dituzte. Baina musikazaleek izango dute beste hitzordurik, ekainaren 26an Bilboko Koru Elkartearen kontzertua izango baita 20:00etan.

Parrandazaleenak animatzeko eta lotienak esnatzeko ardura Arrasateko dultzaineroek izango dute. San Joan egunean eta ekainaren 25ean eta 26an goizeko 08:30ean irtengo dira kalera. Beraiek izango dira, bada, entzierroaren aurretik diana egingo dutenak.

Txikienek Sebastopoleko titiriteroen bisita jasoko dute ekainaren 23an, eta arratsaldeko 17:00etan "Mamutxoren arazoak" emanaldia antzeztuko dute Herriko plazan. Ekainaren 25ean, berriz, Eguzki Laruren bisita jasoko dute.

**BERTSOLARIAK**

Bertsozaleek Unai Iturriaga eta Jon Maia bertsolari gazteen ateraldiak izango dituzte aukeran, Sebero Altube plazan, arratsaldeko 19:15ean.

Bi bertsolari gazte eta gaur egun puntakoen artean dabiltzanak.




JOVI

**10.000 koloretako menua aukeran**

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex.
Neurriko felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoa. Moketa losetan.
Erretxina autonibelatzailea duten lurzoruak.

**Pintura ekologikoak**

Ferrerias, 35 ARRASATE Tel.: 943 79 12 87



SIKOL

*Uda honetarako aukerarik zabalena bainu jantzietan*

*"Bikini bat erosiz gero, Top-a oparituko dizugu"*

Olarte, 31 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 32



autos MURU

HONDA

AUTO KONPONKETAK

Araba etorbidea, 3 • Tel.: 943 79 27 16

Ondo pasau San Juanak

Ezagutu gaitzazu



Honda zerbitzu berria
Deba Garaian

Motor salmenta eta konponketa

- Eskaintza bereziak
- Aurreratu 26.000 pta motor hau erostean
- Zure neurrirako finantziazioa

# ATB ere jaietan, plato

## Iazko jaiak eta Salbea

San Joan bezperan arratsaldeko 13:30ean eta 20:00etan hasiko dira ATBk Sanjuan jaiei eskainitako emisioak. Izan ere, motorrak berotzen joateko, pasa den urteko Sanjuanei eskainitako saio berezia izango da asteazkenean. Gaueko 21:45ean bestalde, Salbea oso-osorik zuen etxeetatik ikusteko aukera izango duzue. Parrokiara joaterik ezbaduzue, ATB piztea baino ez duzue.

## Karaokeaz gozatzeko

Kantatzea gustuko duzuenok ekainaren 24an, osteguna, izango duzue aukera. Izan ere, arratsaldeko seietan Sebero Altube plazan Karaokea izango da. Parte hartzaile eta ikusle guztientzat opariak izango dira. Aurkezle lanetan berriz, Aner eta Maier izango dira. ATBn ostegunean bertan arratsaldeko 20:00etan ikusi ahal izango duzue.

## Ze bero Sebero plazan

Urtero bezala ATBk bere plato berezia jarriko du Sebero Altube plazan. Mikel Lizarraldek aurkeztuta eta Maitane Ruiz de Munain eta Lorea Urrutxuak lagunduta, umeentzako jolasak izango dira. Hiru partaideko bi talde osatu eta jolas ezberdinak egingo dira ekainaren 24, 25 eta 26an Sebero Altuben, egurdiko hamabietan. Parte hartzaile eta ikusle guztientzat opariak izango dira. Ze bero ATBn eguerdiko 14:30ean emitituko da.



**Ekainak 23: Salbea ATBn (21:15).**




**Ekainak 24: Karaokea (20:00).**



**Ekainak 24, 25 eta 26: Ze Bero (14:30).**

MURUAMENDIARAZ
Gozotegia
Jai goxo-goxoak izateko
Erdiko kale, 28 • ARRASATE • Tel.: 943 79 15 34

.... LILURA ....
OIHALAK
San Juanetan ondo-ondo pasatu
Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.:943 - 79 89 72

# an eta kalean

## Sanjuanetan ere Kaleidoskopioa

Unaik eta Aitziberrek Sanjuanetan ere ez dute oporrik hartuko eta ostiralean, hilak 25, Kaleidoskopioa grabatuko dute Seberon. Aurpegi ezagunak, elkarrizketak, bideo-klipak, zuzeneko-antzerkia eta ezusteko ugari izango dira. Magazine bikaina beraz. ATBn egun berean arratsaldeko 20:00etan ikusi ahal izango duzue. Ez galdu!

## Mariatxiak, bertsolariak

Eguenean 19:15ean Unai Iturriaga eta Jon Maia bertsolariak izango dira Seberon ATBn gaueko 21:45ean ikusiko dituzue. Los Perez de Nochistlan Mariatxi taldeak ostiral gauean emango duen emanaldira ezin baduzu joan, larunbat arratsaldean, lauretan, ikusi ahal izango duzu ATBn. ATB beti herritarren zerbitzura.

Bestalde, larunbatean 15:30ean San Juanak 99 saio berezia izango da ATBn, Sanjuan jaietako gorabehera guztiekin.









**Ekainak 25: Kaleidoskopioa (20:00).**



**Ekainak 24: Bertsolariak (21:45).**


TOTEM

- Zapatak
- Arropak
- Tatuajeak
- Body piercinga

☎ 943 79 49 72 / 943 79 44 88
Zarugalde, 14 • ARRASATE



AGR APAINKETA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Horman sarturiko armairuak eta abar

MATERIALEN SALMENTA

**Erakusketa eta biltegia:**
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

# Sanjuanak Arrasate irratian

Arrasate Irratiak programazio berezia eskainiko du San Juan jaietan. Astelehenetik hasi eta ostirala bitartean, 10:00etatik 13:30a arte hainbat irratsaio izango dira entzungai FMko 107.7an.

Astelehenean, "Tribuaren hitz galduak" Mikel Markez eta Pako Aristiren musika eta poesia saioa emango dute lehenengo. 11:00etan asteburuan izandako emanaldiak izango dituzte hizpide: goitibeheren txapelketa, haur dantzarien eguna, haurren danborrada, XX. pilota txapelketa, Zaldibarko futbito txapelketa eta emakumeen mus txapelketa. Ondoren, AEKko irakasleek hartuko dute hitza AEK-Txoko berezian, eta San Joan suaren inguruan mintzatuko dira.

Asteartean musikazaleek Arrasate Musikaleko ikasleen kontzertuaz gozatzeko parada izango dute, goizeko hamarretatik aurrera. Ondoren Itsaso Garai zinegotzia eta SUDCeko ordezkariak elkarrizketatuko dituzte. Sanjuanetako egitaraua ere aurkeztuko dute.



Ohiko langileek laguntzaileak ere izango dituzte Sanjuanetan.

**ASPALDIKO SANJUANAK**

San Joan bezperan, sanjuanetako doinuekin esnatuko da Arrasate Irratia. Ondoren San Joan suaren inguruan arituko dira, eta antzina sanjuanak nola ospatzen ziren ere kontatuko dute.

Oñatirekin zuzeneko harremana ere izango dute, han ere egiten baita San Joan sua. Dragoi janaz gain, gaueko ekitaldien berri emango da.

Eguenean, bezperan izandako Salbearen doinuak emango dituzte Irratian, eta hamaiketatik aurrera danborrada, San Joan sua eta Errementari dantzaren inguruko berri. Ordu berean Arrasateko erraldoien eta buruhandien konpartsak irtengo du Arrasateko kaleak alaitzera, eta Arrasate Irratikoek zuzenean emango dute horren berri. Egun berean nagusiek omenaldia jasoko dute, eta Monterronen ere kontzertua izango da. Bada, gertaera horien haritik ere tiratuko du Arrasate Irratiak, zuzen-zuzenean.

**ZUZENEKO PROGRAMAZIOA**

Ostiralean, Jon Maia eta Unai Iturriaga bertsolariek bezperan kantatutako bertsoak entzun ahal izango dira FMko 107.7an, eta 11:00etatik aurrerako programazioa zuzenean emango dute: bakailao lehiaketa, Eguzki Laruren bisita, Zaldibarko umeen parkea... Azken bi egunetan entzierroaren inguruko kontakizuna ere egingo dute, eta prentsari gainbegiratua egiteaz gain, eguraldiaren iragarpena ere egingo dute aste guztian.

Baina, hori guztia gutxi balitz, Arrasate Irratian lehiaketa bat izango da eskura, astelehenetik ostirala bitartean, goizeko 11:30ean. Hainbat galdera egingo dituzte, eta eguakoitzean puntu gehien pilatuta dituena saritua izango da. Programazio aberats hau aurrera eramateko hainbat laguntzaileren laguntza jasoko dute Arrasate Irratikoek. Haien partetik, eskerrik asko!


PRESTAKUNTZA PROFESIONALEKO ZENTRUA

Katy's

- Ile apaingintza
- Estetika
- Kiromasajea

EUROPAKO TITULU OFIZIALA

Le's

RPS: 22598

- Klinika laguntzailea
- Umezaintza
- Geriatria laguntzailea
- Hortzetako klinika

Independentzia, 22-1 • GASTEIZ
Tel.: 945 12 07 32

**LAN ESKAINTZA**

**EKIN EMAKUMEAK eta EUSKALAN elkarteek egun erdirako eragile bat kontratatu behar dute.**

**Eginkizunak:** bi elkarteentzako idazkaritza eta eragile lanak.

Hautaketa probetan parte hartu gura izanez gero, bidali/ekarri curriculuma AEDra, uztailaren 2a baino lehen.

Ekin Emakumeak • AED

EUSKALAN

Informazio gehiagorako dei egin 943 77 12 28 telefonora edo etorri Pablo Urangaren 4an dugun bulegora.

COMERCIOS CENTROCIEN

Arbolapetan!
Olarte, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 27

**TTUKUN**

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

# Ehune

Apainketa




Otalora, 21

Tel: 943 77 11 48

ARRASATE

# Euskal presoak Euskal Herrira


Joseba Garitaonandia


Jon Agirre


Josu Uribetxebarria


Goio Etxabe


Jose I. Gaztañaga


Kepa Urra


Josu Arkauz


Unai Parot


Pedro Guridi


Jesus Mari Zabarte


Enrike Letona




Pilar Mondragon


Jose Gabriel Urizar


Luis Mari Azkargorta

*errefuxiatuak*

# Etxean nahi ditugu

*Idatziezu!*

*Tabernetan dituzu helbideak*

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

Biona, Ekaitz, Etxerat, Iluntz, Irati, Iturriotz, Jaizale, Zuk Nahi

**JAI ZALE TABERNA**

- Ogitartekoak
- Infusio naturalak eta...
- Pintxoak

MARTXA TOPATUKO DUZU!

Olarte, 37 • Tel.: 943 79 67 92 • ARRASATE

**BIONA TABERNA**

**DISCO-BAR**

**GURELEKU**

**Disco-Bar Gurelekuk SAN JOAN ZORIONTSUAK opa dizkizu.**

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 29

**ESKIÑA taberna**

**Ondo ibili San Juanetan!**

Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20

**IRATI TABERNA**

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

**PUB HAIZEA**




**Lora bar**

**Aupa arrasatearrak!**
**Aupa San Juanak!**

**MUXIBAR**

Tel.: 943 79 11 25
PIZZAK

**ETXERAT TABERNA**

ZURGIN KANTOI, 5
TEL.: 943 79 20 52
ARRASATE

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!

LAKET



LAKET
Otalora, z/g • Tel.: 943 79 11 72



LAKET Txiki
Erdiko kale, 10 • Tel.: 943 79 93 33

Txiki LAKET

Emakume, gizon, ume eta gazteentzat
imajina dezakezun arropa guztia, zeure eskura.
**Eta markarik onenak!**

**ALTZARIAK**

**UGARTE**

**APAINKETA**

**AROZTEGIA**

- Leiho termoakustikoak
- Ateak

Horma armairuak •
Altzariak •





**San Juan, 1**
**(Gasolindegiaren parean)**
**BERGARA**
**Telefonoa eta Faxa: 943 76 54 91**



1953ko herriko jaietan San Juan etxeen aurrealdean atera zen argazki hau. Maria Aranbarrik erakutsitako dantza taldea duzue, orduko Acción Catolicako dantza taldea, hain zuzen ere. Goian ezkerretik hasita, honakoak daude: Pilar Bengoa, Mari Karmen Aranburu, Mari Karmen Ibeas, Isabel Mondragon, Maria Asun Askasibar, Milagros Balanzategi eta Mari Karmen Atxa.

Behean daude: Lurdes Gorostiza, Maria Jesus Sanz, Josefina Perez, Begoña Baskaran, Milagros Berezibar eta Maria Angeles Muruamendiaraz.

San Joan bezperan irteten zen dantza taldea orduan. Arratsaldeko 15:00etan kalejira egin eta ostean plazan izaten zen dantzaldia.

Taldeko jantziak, berriz, nork bereak egin behar izaten zituen. Batzuek etxean egiten zituzten eta ahal zutenek, kanpoan.

***Argazkia eta berriemaleak:***
*Maria Aranbarri eta Josefina Perez.*




ARBA

JUANITA ARANA

Apainketa eta sukalde proiektuak

MIELE sukalde altzariak

FAGOR
Küppersbusch
Miele
LIEBHERR
GAGGENAU
Amana

Mondragones kalea, 9 • 20500 Arrasate
Tel.: 943 77 07 50 • Faxa: 943 77 07 50

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Salouko Pinedan estudio berriztua salgai, altzariak eta guzti. Puerta del Mar etxe multzoan. Piszina, tenisa eta jolastokiaren ondoan. 3.500.000 pta. Tel.: 943 79 18 29.

### 2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Aretxabaletan edo Arrasaten. Tel.: 943 79 90 24.

### 3. Errentan emateko

• Apartamentua alokagai Peñiskolan, uztaileko lehen hamabostaldian eta abuztuko bigarrenean. Hondartzatik eta kirol esparrutik oso gertu. Tel.: 943 79 57 31.

• Duplexa alokagi Cambrilsen. Igerilekua eta hondartzatik 50m.ra. San Juanetan edo irailean. Tel.: 943 79 83 62. Gauez.

• Torreviejan apartamentua alokagai. Bi logela, jangela-egongela, etab. Hondartzatik 100 m.ra. Tel.: 943 77 03 85.

• Bungalowa alokagai, hondartzatik oso gertu. Abuztua eta iraila. Oso handia. Tel.: 943 79 52 94. Mariano.

• Eskola Politeknikotik gertu, etxebizitza alokatzen da ikasleentzat. Tel.: 943 79 77 85.

### 4. Errentan hartzeko

• 4 edo 5 logelako etxebizitza alokatuko genuke. Tel.: 943 79 84 40.

• Lan kontuagatik Gasteizko bikote gazte batek (35 eta 32 urte) etxebizitza behar du, bi urterako gutxienez, Arrasaten edo inguruetan. Tel.: 945 25 70 91, 943 71 42 86. Jabier.

• Lau gaztek etxebizitza alokatuko genuke. Tel.: 943 79 50 85. Igor.

• Arrasaten etxebizitza alokatu nahiko genuke. Tel: 656 41 60 93 eta 94 673 71 72. Arkaitz.

• Etxebizitza errentan hartuko genuke lau ikaslek. Ahal bada, Eskola Politeknikoaren inguruan. Tel.: 943 77 16 61. 104. logela, 21:00etatik 22:15era.

• Etxebizitza nahi dut alokatu. Uztailetik aurrera. Tel.: 945 24 08 65. Zuriñe.

• Lau ikaslek etxebizitza alokatuko genuke Arrasaten. Tel.: 943 39 46 33.


**ETXEBIZITZAK**
1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

**GARAJEAK**
7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

**LOKALAK/ORUBEAK**
12. Saldu
13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

**LANA**
17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

**IRAKASKUNTZA**
20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

**MOTORRA**
23. Saldu
24. Erosi
25. Bestelakoak

**DENETARIK**
26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

**HARREMANAK**
34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak


# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

• Errentan hartzeko etxebizitza behar da Arrasaten, lau ikaslerentzat. Tel.: 94 442 17 87. Ander.

### 5. Etxeak osatzeko

• Neska bat behar da gela bat alokatzeko ekainaren 15etik irailaren 15era, San Andresen. Tel.: 943 79 72 99. Maria, 18:00 - 19:30.

• Etxebizitza osatzeko lagun euskaldun bat behar da. Tel.: 943 79 93 03.

• Pertsona bat behar da Arrasaten etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 27 64.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garajea salgai Lankelen (Roneo) Tel.: 943 79 01 71. 19:00etatik 22:00etara.

### 9. Errentan emateko

• Garaje bikoitza alokagai, Roneon. Tel.: 943 79 13 56.

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• 60m²ko toki baten bila bazabiltza bulegoa, ile apaindegа edo antzeko zerbait jartzeko, deitu 943 79 18 95 telefonora. Berogailua dauka eta Arrasate hoteletik gertu dago.

### 14. Errentan emateko

• Lokal komertziala alokatzen da Arrasateko erdigunean. Tel.: 600 65 68 15 edo 630 55 16 29.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Emakume arduratsua umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 943 79 54 48.

• Emakumea garbiketak eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 943 79 78 36. Mari Carmen.

• Emakume bat gertu plantxa egiteko. Tel.: 943 79 68 77.

• Neska euskalduna San Juanetan taberna batean lan egiteko prest. Tel.: 943 79 01 06.

• Neska gertu umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 53 74.

### 18. Eskaerak

• Neska edo mutila behar da asteburu gauetan jangelan zerbitzeko. Tel.: 943 79 68 57.

• Tabernaria behar da Oñatiko taberna batean aritzeko. Tel.: 943 78 06 59.

• Neska gazte bat behar da haurrak zaintzeko, ekainaren 15etik uztailaren 30era bitartean. Goizez, 09:00etaik 13:00etara. Tel.: 943 79 82 73. Maribel, iluntzetan.

• Zerbitzariak behar dira jatetxean aritzeko. Tel.: 943 78 35 26.

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel: 943 77 05 22.

• Zerbitzaria behar da asteburuetan jatetxe batean lan egiteko . Tel.: 945 44 50 95.

• Pertsona heldua zaintzeko norbait behar da. Tel.: 943 79 66 96. (19:00 - 22:00).

• Tabernarako zerbitzaria behar da. Tel.: 945 44 50 86.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Ingeleseko eskola partikularrak emango nituzke. Tel.: 943 79 01 06.

• Ingelesezko eskolak emango ditut uztailean. Tel.: 943 79 18 70.

### 21. Eskaerak

• Batxilergoko 2. mailako matematika eta teknologia industrial elektrikoko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 34 53.

• Ile apaindegiko titulua duen neska prest lana egiteko. Tel: 943 79 53 57 edo 943 17 02 43. Maider, gauez deitu.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Honda Shadow 1100 motorra salgai. Oso egoera onean, estra asko-

rekin. Osagai orijinalak oparitan. 1.180.000 pta. Tel.: 943 00 81 15 (Jabi).

• Wolkswagen Golf GTI, SS-AF matrikula, salgai. Tel.: 943 77 04 87 / 670 40 41 20.

• Opel Vectra 2. OI GT 16V saltzen dut (93ko modeloa), SS-AN. Tel.: 943 79 63 67.

• Audi 90 2 2 Quatro salgai, SS-AH matrikuladuna. Oso egoera onean, estra guztiekin. Tel.. 608 77 18 57.

• 1998ko Derby Senda SM bat salgai, 200.000 pta.tan. Egoera onean. Tel.: 943 79 58 45. Raul.

• Ford Sierra 2.000 CL, SS-Z salgai. Tel.: 943 79 95 01.

• Vespino NLX ia berria salgai. Tel.: 943 79 60 81. Jose Mari.

• Opel Corsa salgai. 80.000 km. SS-V. Egoera onean. Tel.: 943 58 50 17.

• Wolkswagen combi bat salgai, guztiz hornituta. Tel.:943 71 49 15. 21:00etatik aurrera.

• Rover 216,SSY saltzen dut, 200.000 pta.tan. Tel.: 943 79 37 99. Mikel. (08:00 - 15:00).

• M-SS matrikula duen Ford Escort XR3 Injection autoa salgai. 350.000 pta.tan. (negoziagarria). Egoera onean. Tel.: 943 77 13 91. Gauez.

• Fiat Regatta 70 SS-AB salgai 200.000 pta.tan. Negoziagarria. Tel.: 943 79 83 72. Gauez.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Yamaha-Clavinova (CLP 360) pianoa salgai. Erabiltzeke dago. Tel.: 943 75 11 70.

• Super Nintendo bat salgai, sei joko, aginte eta klabe eta guzti (konektoreak). Tel.: 943 79 92 23. Josu, gauez.

• Kanpin denda salgai. Bi logela, estalkia eta egongela txikia ditu, berria dago eta ipintzeko erraza da. Tel.: 943 74 05 37. Mila.

• Karabana salgai, Roller 390. Tel.: 943 77 05 22. Iluntzean deitu.

• Mendiko bizikleta salgai, 8 urteko ume batentzat. Tel.: 943 39 46 33.

• Minolta X500 argazki kamera (50 mm), Minolta auto 280PX flasha, eta 135 mm.ko objektiboarekin salatzen dut. Egoera bikainean dago. Tel.: 943 79 06 15/946 58 31 92.

• Area Pro 2 markako gitarra elektrikoa salgai. Egoera onean eta gutxi erabilia. Estalkia oparitu egingo dut. Tel.: 943 79 73 30. Ekain. 21:00etan deitu.

• Lau lagunentzako Adria 3,75 m.ko karabana salgai. Abantze eta guzti. Egoera onean. Tel.: 943 74 07 85.

### 27. Erosi

• Lerro bateko irristailuak erosiko nituzke. 37 zenbakikoak. Tel.: 943 42 12 61. 20:00etatik aurrera.

### 29. Eman

• Lau katakume oparitzeko. Nahi duenak, deitu 943 79 97 84 telefonora. Xabi.

### 30. Hartu

• Panpinak behar dira lehenbailehen arte lan bat egiteko. Egoera onean bueltatuko dira. Deitu astelehenetik ostegunera bitartean 670 30 02 69 telefonora. Maite.

### 31. Galdu

• Betaurreko graduatuak galdu dira Uribarrin. Tel.: 943 79 95 24. Karmen.

• Behealdeko ordezko haginak aurkitu ditut Zaldibarko 7. zenbakian. Tel.: 943 77 11 68.

• Umearen bota zuria galdu nuen joan den ostegunean, hilaren 20an. Munar, Arrasate pasealekua eta erdialdea bitartean. Tel.: 943 79 69 68.

• Joan den astean emakumezko erloju bat galdu nuen erdialdean. Korrea marroia eta esfera zuria du. Aurkitu baduzu, dei egin 943 79 03 29 telefonora.

### 32. Aurkitu

• Orain dela hilabete lepoko zapi bat aurkitu nuen, Uribarri etorbidean. Tel.: 943 79 34 61.

• Betaurreko batzuk agertu dira Larragain kaleko garajean. Tel.: 943 79 86 28.

## HARREMANAK

### 35. Kontaktuak

• Biolin jole eta zehar flauta jole bat behar dugu musika talde batean jotzeko. Tel.: 943 79 95 76. Esteban.





Sanjuanetako bigarren egunean aurreskua dantzatzeko ohitura zegoen herriko plazan. Biltzen zen jendetzatik dantzariek bikotea aukeratzen zuten eta ohorezko dantza hari eskaintzen zioten. Txistulariak Azkoitiatik etorri ziren.

1951koa da argazkia, dantza hau horrela egin zen azken aldikoa, hain zuzen ere. Ordua arte, gaztetandik hasi eta Agirreurretarrak aritu ziren urte askoan lan honetan, baina nagusitu zirenean utzi egin zuten eta gazteek ez zioten jarraipenik eman ohitura honi.

Argazkian, dantzariak —Migel, Nikolas eta Agustin Agirreurreta— aurreskua dantzatzen.

***Argazkia eta berriemalea:***
*Gloria Agirreurreta.*


# URONDO
## Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

**Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE**
**Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76**






**San Joan jai zoriontsuak pasatu**

Grupo Nortekar

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **BILBOCASION** | **AUCASA** | **ALDIAK** | **ALDIBI** | **ALDIBI** | **ALDIKAR ALMOVIL** | **ALDIKAR ALMOVIL** |
| Jaen, 11 | P. Larramendi, 10 | Mallabiena auzoa, 4 | Zigarrola, 1 | Olaso pol., z/g | Colon pas., 27 | Oria etorbidea, 6 |
| Tel.: 94 410 16 61 | Tel.: 94 410 39 39 | Tel.: 94 681 67 66 | Tel.: 943 71 20 02 | Tel.: 943 74 20 37 | Tel.: 943 27 09 99 | Tel.: 943 27 09 99 |
| BILBO | BILBO | IURRETA | ARRASATE | ELGOIBAR | DONOSTIA | LASARTE |



San Juanetako hirugarren eguneko argazkia da hauxe, 1956koa. San Frantziskoko Kalistroetan"Beti Gazte" lagun-taldeari ateratakoa da. Ezkerretik hasita, zutik: Miren Aiastui, Tere Okina, Amaia Juldain, Rosarito Altube, Libe Arabaolaza, Edurne Zaitegi eta Rosita Ugarte. Eserita: Mari Carmen Atxa, Elvira Villar eta Mariluz Arregi. Mutikotxoa Angel Barandiaran da, baina neskatila ez dugu ezagutzen.

Gizonezkoei dagokienez, nesken artekoa, Sabin Zubizarreta da. Flautajolea, Lamarain da; tronboijolea, berriz, Jose Luis Mendieta. Bonboduna, Jose Mari Berezibar, Eusebio Gomez soinuarekin eta ondokoa, Inda. Atzean pankartarekin Eugenio Otxandiano.

***Argazkia eta berriemailea:***
*Marilu Arregi*

KALITATEZKO TINDATEGI AZKARRA

vit·sec

KALITATEA ORDUBETEAN

- Teknologia
- Ekologia
- Profesionaltasuna
- Zerbitzua
- Kalitatea

Edozein motatako **jantziak, etxeko oihalak, larrua, dama eta alfronbrak** garbitu nahi badituzu, hemen, **goreneko kalitatea eta zerbitzurik** onena eskaintzen dizkizugu.

**Zure orrialde horietatik gure kupoiak erabiltzen badituzu %20ko beherapena.**

San Joan jai zoriontsuak

Otalora lizentziatua, 22 (Uharkape) • Tel.: 943 77 17 82 • ARRASATE


ZURE ETXERAKO NAHI
DITUZUN ALTZARIAK
ZURE POLTSIKOAK
NAHI DITUEN
PREZIOETAN
Itxi begiak eta irudika ezazu altzari erakusketarik handiena. Ikusten duzu? Aukera aberatsa, bilatzen ari zarena aurki dezazun. Markarik onenekin eta kalitatearen bermearekin. Eta hementxe bertan, Arrasaten. Baina eska ezazu gehiago. Pentsa ezazu prezioak ezin direla hobetu. Posible ote? Bai. ireki begiak eta hurbil zaitez TodoMueblera. Ikusiko duzu zenbait amets bete egiten direla.
Gazte logela
Logela klasikoa
Aretoak
Mahaiak
Aulkiak
Lastairak
ORDAINDU 24 HILABETEAN
3.etik hasita
interesik barik
Eta, nahi baduzu, ordaintzeko erraztasunik handienak eskainiko dizkizugu. 24 hilabete, interesik barik, eta hirugarren hilabetetik aurrera ordaintzen hasita, edo finantzaturik, bost urtean.
TODO Mueble DANA ONA
Kabia
Gipuzkoa Etorbidea, 28 • Tel. 943 79 27 70 • ARRASATE
Ordutegia: 10:15 - 13:30 eta 16:00 - 20:00. Larunbatak barne


mondeo seriejazz.
gidatzeko atseginaren interpretazio paregabea.
zuk aukeratu, mondeo jazz 4 edo 5 aterekin edo wagon delakoa, gasolina 16v edo turbodiesela intercooler eta guzti.
lagunduriko direkzioa.
beira jasogailu elektrikoak aurrean.
itxigailu bateratua.
gidariarentzako aire poltsa.
geldigailu elektronikoa.
pintura metalizatua.
5000 con irratikaseta agintegailua bolantean.
2.415.000 pta
fordmondeo
Ford
aukeratu, probatu eta erosi, aukera hauetan:
jazz seriea 1.8 16v/1.8 td 2.415.000 pta
ghia 2.0 16v 2.880.000 pta
ST200 24v 205cv 4.200.000 pta
ghia 1.8 td 90cv 2.780.000 pta
executive/rs 24v 170cv 3.625.000 pta
MUGARRI AUTOMOBILAK
Araba etorbidea, z/g. ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44
MUGARRI
Argazkiko automobila Mondeo jazz seriekoa da. Gomendaturiko publikoarentzako salneurriak. BEZa, garraioa, matrikulatzeko zerga eta